

Elkartearen Aldizkari

22.zbk. 2026

- Editoriala
- Argazki lehiaketa
- Elkarte
- Iritzia
- Kontsumo
- Bidaiak
- Eskaintzak
ta gehiago

BBK_ ko Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarte

Principe kalea, 5. 505 saila • 48001 BILBO • Tel. 94 425 57 96 • asojubibbk@gmail.com • www.asojubibbk.es





EDITORIALA

Azken urteotan, gure ohiko jarduerarekin eta agertuz joan diren gaiekin batera, beti izan dugu kezka berezia nabarmen eragiten digun gai bati buruz, hau da, BGAEen eta pentsio-planetakako fondoan erabileraren eta berreskurapenaren tratamendu fiskalari buruz, batez ere horrek HAZIA duen eraginagatik.

Gure jakinarazpenengatik dakizuenez, hainbat kontsulta egin ditugu zenbait kabinete juridikotan, eta gaiari buruzko lege-txostenak ere eskatu ditugu, legezko erreklamazio baterako oinarri gisa erabili ahal izateko. Gaia gutxi gorabehera prest genuenean behin betiko urratsa egiteko, pozarren jaso genuen apirilaren 22an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu izana (75. zk.) **2/2025 FORU ARAUA, apirilaren 9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituena.** Arau horrek borondatezko gizarte-aurreikuspenari buruzko araudia sakon aldatzen du, eta, beraz, nabarmen eragiten dio BGAEen zerga-erregimenari 2026ko urtarilaren 1etik aurrera.

Arau horrek Arabari eta Gipuzkoari ere eragiten die, lurralde horiek ere argitaratu zuten eta, nahiko azkar, baita hura garatzen duten erregelamenduak ere. Hilabete batzuk itxaron dugu azkenean, joan den azaroaren 13an, zirkulua itxi zen arte Bizkaiko Foru Aldundiaren 100/25 Foru Dekretua argitaratuta. Foru Dekretu horrek 2/2025 Araua garatzen du eta, beraz, bidea berdinduta uzten du hurrengo zerga-ekitaldian behin betiko aplikatzeko. Oraitindik zalantza batzuk ditugu erabat argitu gabeko puntuei buruz, eta espero dugu aurrera egin ahala konponduko direla, baina oso argi dugu arau-aldaketa horrek oso eragin positiboa izango duela gure pentsio-funts edo fondoan berreskurapenen tratamendu fiskalean. Pertsona bakoitzaren problematika partikularrak zalantza eta itaun edo galdera ugari sor ditzake, eta ikusiko dugu zelan konpontzen diren. Guk, elkartetik, gaiak aztertzen eta lantzen jarraituko dugu, eta aurkeztutako zalantzei buruz informazioa eta gure iritzia ematen. Adibide praktiko gutxi batzuk prestatzen ari gara, arauaren interpretazioa eta aplikazioa errazteko.

Datorren ekitaldirako berri on hau atzean dugula, gure aldizkariaren ale berri honen argitalpenaz baliatzen gara Elkartetik zuei guztioi opatzeko Gabonetako jai zoriontsuak izan ditzazuela zuen familiekin batera.

EDITORIAL

En los últimos años conviviendo con nuestra actividad habitual y con los temas que han ido apareciendo, siempre hemos mantenido una especial preocupación por un asunto que nos afecta notablemente, que es el tratamiento fiscal en las disposiciones y recuperación de fondos de E.P.S.Vs. y planes de pensiones, fundamentalmente por la incidencia en HAZIA.

Como ya conocéis por nuestras comunicaciones, hemos llevado a cabo diferentes consultas a varios gabinetes jurídicos, solicitando incluso informes legales sobre el asunto, que nos sirvieran de base para una posible reclamación legal. Cuando ya teníamos el tema más o menos preparado para dar un paso definitivo, recibimos con alegría la publicación el pasado 22 de abril en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 75 de la **NORMA FORAL 2/2025, por la que se aprobaban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia.** Esta norma abarca la reforma en profundidad de la normativa sobre previsión social voluntaria y, por tanto, afecta notablemente al régimen tributario de las EPSV a partir del 1 de enero de 2026.

Esta norma también afecta a Alava y Guipúzcoa, territorios que procedieron a su publicación y que, con bastante celeridad, publicaron asimismo los correspondientes reglamentos que la desarrollan. Hemos esperado unos meses hasta que finalmente el pasado 13 de noviembre se cierra el círculo con la publicación del Decreto Foral 100/25 de la Diputación Foral de Bizkaia, que desarrolla la Norma 2/2025 y por tanto deja el camino preparado para su aplicación definitiva en el próximo ejercicio fiscal. Tenemos todavía algunas dudas sobre puntos no aclarados del todo, que esperamos se vayan solucionan sobre la marcha, pero lo que tenemos muy claro, es que este cambio normativo nos va a afectar muy positivamente en el tratamiento fiscal de las recuperaciones de nuestros fondos de pensiones.

La problemática particular de cada persona puede abrir un amplio abanico de dudas y posibles preguntas que ya veremos cómo se solucionan. Nosotros desde la Asociación seguiremos estudiando y analizando los temas e informando y dando nuestra opinión sobre las dudas presentadas. Estamos trabajando en la preparación de unos pocos ejemplos prácticos que puedan facilitar la interpretación y aplicación de la norma.

Con el fondo de esta buena noticia para el para el próximo ejercicio, aprovechamos la publicación de este nuevo número de nuestra Revista, para desearos desde la Asociación unas muy felices fiestas navideñas en compañía de vuestras familias.

Zorionak eta Urte Berri On!



2025 Gabonak

1 abendua, 2025 || por Juan Carlos Ruiz de Villa

Iritsi da berriro abendua eta berarekin batera Gabonetako Jaiak beste behin. Eta beste behin ere akats berberak egingo ditugu ia denok, estresatu egingo gara pentsatuz zer prestatu behar dugun Gabon gaueko afarirako, Egu-berri eguneko bazkarirako eta, zer esanik ez, Urte Zahar gauerako: mahatsa gauerdiko kanpaietarako, pipitekin edo barik, gutxi edo asko izango den, hobe izango dela ospakizuna etxetik kanpo jatetxe batean egitea, edo are hobeto: zergatik ez landetxe bat alokatu eta denok bertara joan? Eta modu triste horretan, gure gogo beste edozein lekutan jarriko dugu, baina ez Gabonen funts edo mamian.

Eta asko konplikatuko gara, asko! “Zer premia daukagu, ordea?” esaten zuen izeko Mercedes maiteak, eta horixe diot nik: “Zer premia daukagu horrela konplikatzeko?”.

Zein erraza izango litzatekeen bakoitzak bere aldetik pixka bat jartzea, denok zerbait xumearekin laguntzea eta horri maitasun handia eta irribarre asko jartzea!

Berriz ere huts egingo dugu janarietan eta oturuntzan gehiago pentsatzen badugu bazkaltiar edo mahaikideengan baino, horiek gure senide kutunenak izango direlarik edo izan beharko luketelarik. Beraz, pentsa dezagun kanpoan lan egiten duten eta egun hauetan amaren besarkada eskatuz etxera itzultzen diren seme-alaba horiengan; maitasuna eskatzen duen eta egun batzuetan gure etxera ongi hartua izateko ilusioarekin etortzen den neba-arreba, anaia edo ahizpa absente horrengan; eta baita betiko joan eta maitasun guztiarekin gogoratzen ditugun haiengan ere, gogoratzen ditugun bitartean beti gurekin egongo baitira. Horretarako dira jai hauek, maitasuna eman eta jasotzeko.

Tragediaz betetako urtea izan dugu, eta komunikabideek horren berri eman digute era guztietako hondamendi, gerra, genozidio eta suntsipenekin bonbardatuz; beraz, uste dut garaia dela José M^o R. Olaizolarekin hausnartu eta pentsatzeko:

Berriro ere Jainko Haurra, Jesus Salbatzailea, guri apaltasunaren jarraibidea erakusteko Belengo aska batean umil-umil jaio nahi izan zuena, dator bakean bizi behar dugula gogorazterea, denok senide garela, iparraldea eta hegoaldea mapetan bakarrik daudela, eta bidea erakustera eta zelan jokatu behar dugun irakastera: “Maita ezazue elkar, nik maite izan zaituztedan bezala”, esan zigun.

Izan ere, maitasunez, ilusioz eta bakez betetako irribarre ezpainetara ekartzeko balio behar digute Gabon jai hauek.

Maitasun guztiarekin, Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuet!

Haserretu eta oihu egin behar da bizitza-profanatzailearen, itxura-saltzailearen, kredo-merkatariaren eta pena-lukurariaren kontra. ‘Ez!’ esan behar zaio gerrekin dirua egiten duenari, eta fede biluzia kontrajarri armei eta zentzu-, hitz-, itxaropen- eta inozentzia-gose den gizateria atzaparkadaka mehatxatzen duten basapiztiei. Lurrera bota behar dira legeekin tratuan dabiltzan eta kontzientziak manipulatzan dituzten trukatzaileen mahaia. Aurre egin behar zaio duintasunik ezari nahiz eta erresistitzeak ezeroso bihurtu borrokalaria, eta arriskutsu alegatzen duena maitatzea ez dela negozioa, ezta egoismoa ere bandera. Sarraillak eta kateak kendu behar dira tenplutik, torlojuz loturiko kredoak eta harrizko bihotzak. Zaratotsa isildu behar da, eta profetei ahotsa eman”.



BURDINAZKO GIZONAK

Ez da oso urrutira joan behar. Ondoan dugu. Eta agian horregatik ez gara konturatzeko daukagunaz. Beste garai batzuk, beste mundu bat, beste bizimodu batzuk, bizibidea ateratzeko beste era batzuk, ogibidea bilatzeko beste modu batzuk. Garai batean Bizkaiak industrian topatu zuen gora egiteko, mapan esanguratsu bihurtzeko, ezaguna eta aitortua izateko metodorik onena. Eta hura gauzatzeko egokiak ziren gizakiak ere aurkitu zituen.

Bizkaiak bere errailetan hain beharrezkoa eta prezia-tua zen mineral edo mea bat zuela jakina zen K.a. V. mendetik gutxienez, bertara etorri ziren erromatarrek perfekzionatu baitzituzten erauzte-teknikak. Gero, Erdi Aroan, horri buruzko ia aztarna idatzirik ez da- goen arren, probintzia osoan zehar burdinola-kopuru zehaztugabe bat mantendu izanak erakusten du erauzketak -errazak beren ugaritasunagatik eta azaleran egoteagatik- eta hainbat zereginetarako tresna edo la- nabes bihurtzeko burdinaren eraldaketa konstante bat zirela, nazioartean ere ondo merezitako ospea lortuz. “Zaina” zen, burdin mea.

Aurreko egunean -egun zoragarria, bide batez esan- da- jubilatutaldea bat autobusean sartu eta Bizkaiko meatze-arrora joan ginen. Kanpoko turistek gutxi bisi- tatutako eremua da, eta are gutxiago handik kilometro gutxira bizi garenok. Mendeetan zehar inguru haietan izandako meatzaritzak edertasun eta, lekukotasunaren aldetik, balio handiko paisaia kulturala sorrarazi du.

Meatzaldea deitzen zaio Bizkaiko ezkerlaldeko mea- tze-guneari. Abanto-Zierbena, Trapagaran, Ortuella, Muskiz eta Zierbena udalerriek mugatzen dute, eta bertan sartuta Gallarta eta Zugaztieta dauzkagu, batez ere. Burdinaren ustiapenean izan zuen garrantziagatik ezagutzen da, erromatarren garaitik XX. mendearen erdialdera arte inguru hartan jardura ekonomiko na- gusietako bat izan baitzen.

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museorantz jo genuen zuzenean, eta han emakumezko gidari gazte batek nahikotasunez azaldu zigun zer zegoen han eta zer adierazten zuen. Era berean, 1945eko No-Do oroitu-aren dokumental bat ikusteko aukera izan genuen. Ber- tan, meategi bat izandakoaren, baita meatzarien ere, irudi oso esanguratsuak erakusten ziren. Narrazioa oso garai hartakoa zen, triunfalista, baina meatzeetan ger- tatzen zenaren irudiak oso errealak.

Eta haiei, han jardun zuten gizakiei, erreparatuko diet. Ez dut kontatuko meategiak zelakoak ziren, nortzuk

izan ziren haien jabeak, nola funtzionatzen zuten erabilitako materialek, zelakoak ziren erabilitako tresna edo erremintak, eta ez dut deskribatuko Larreinetako funikularraren funtzioa, Zugaztieta Trapagaranekin (antzina San Salvador del Valle deituarekin) lotzen duena. Aitzitik, oraingo honetan erreparatuko diet orduko pertsona haiei, inguruko zorupetik igarotzen diren eta, besteak beste, «Concha» meategi handia osotzen duten 50 km-ko galeriak beren eskuekin eraikitzeke, hobeto esanda, zulatzeko adorea izan zutenei, bai eta lurrak eskaintzen zien, baina gainazalean nekez agertzen zen, burdin mea ateratzeko ere. Eta bizirik irautekoa. Funtsezkoa da gure iragana ezagutzea, oraina ulertzeko eta guztiontzat etorkizun hobea bilatzeko.

Zalantza barik, burdin mearen industria honek, bere ugaritasun eta kalitateagatik, probintzia osoko garapen ekonomikoan lagundu du. Horren adierazgarri dira, bertan, mea eraldatu eta tratatu ostean, armak, itsasontziak, aingurak fabrikatzen diharduten enpresa asko, han-hemenka dauden burdinolak eta Labe Garaiak, hamarkada askotan gure nortasunaren ezaugarri izan direnak. Burdina egoteak eta haren eraldaketak eratu dute betidanik gure ezaugarri izan den industria-sarea.

XIX. mendearen erdialdera arte, erauzketa nahiko erraza izan zen mineral edo mea gainazalean zegoelako, eta oso tresna sinpleak erabiltzen ziren, hala nola pikotxak eta ziriak zuloak edo galeria txikiak egiteko. Ateratzen zutena burdinoletara eroaten zuten mando edo idiek tiratutako orgetan, eta kanpora zihoana itsasertzeraino eramane eta han ontziratzen zuten beste probintzia batzuetara bidaltzeko, edota Ingalaterrara ere bai. Hango beharginak inguruko «baserritarrak» izaten ziren, eta haien nekazaritza-egiteko propioen osagarri ziren oso bestelakoak ez ziren beste lan haiek.

XIX. mendearen bigarren zatian, meatzaritzak eta burdinaren industriak jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa eman zuten, batez ere 1876an 3. Karlistaldia amaitu ostean. Gerra hartan, ordura arte Estatuaren protekzionismoaren pean egondako meategiak, gurea bezalako kalitatezko burdinaren eskariaren hazkunde esponentzialaren ondorioz, pribatizatuz joan ziren, eta Industria Iraultza delakoa iritsi zen. Atzerriko kapitala sartu zen, berrikuntza teknologikoa izan zen bai minerala erauzteko eta bai zama-lekuekaraino eroan eta garraiatzeko, ustategien tamaina handitu egin zen, eta hori guztia elkartuta, meatzaritzak garapen izugarria izan zuen.

Egoera berri horrek immigranteen exodo masiboa eragin zuen probintzia mugakideetatik, batez ere hasieran. Horren ondorioz, meatzeen inguruko herrien hazkunde neurrigabea eta oso desordenatua izan zen, eta herri berriak ere sortu ziren *ex profeso*, hala nola Larreinetak, Zugaztieta edo Gallarta. Eta hona iritsi nahi nuen nik.

Lehenengo itaun edo galdera hau litzateke: Zergatik gertatu zen immigrazio izugarri hura? Nondik zetozen gehienak? Zerk erakarri zituen beren herrietatik irten eta ezezagunerantz joateko? Nork eman zien aterpea eta jatekoa jende guzti haiei? Gizonak bakarrik etortzen ziren, edo haien familiak osorik ere bai? Zer ezagutza zuten meatzaritzari eta beharrezko tresna edo lanabesei buruz? Zelakoa zen haien gizarte- eta lan-bizitza?

Faktoreak hainbat izan ziren, baina batez ere udale-tako eta estatuko diru-kutxak ia baliabiderik gabe laga zituzten Karlistaldiek eragindako zorpetzea, gerra haiek eragindako heriotzen ondoriozko biztanle-galera, edo hain agerikoak ez diren beste aldagai batzuk; horiek guztiek nekazaritza-jardueraren murrizketa nabarmena, azienda askoren desagertzea eta jabetzak suntsitzea eta/edo bertan behera uztea eragin zuten.



Burdinbidea eraikitzen

Imajinatzen dut Burgos edo Leongo familia bat, nekazaria, handik etorri baitziren nire arbasoak, baina euskaldunak ere baziren, neguko gau luzeetan, zumezko aulki apal batzuetan eserita, sutondoan, zer egin eztabaidatzen hurrengo egunean jateko zerbait izateko beren ortuan zeukatenaz gain, hau da, zer jaten eman seme-alabei, eta guztientzako etorkizun hobea topatzeko moduari bueltak ematen, beren egoera iraultzeko aukerak aztertzen, hobetzeko aukerak bilatzen... Eta aterpea eta itxaropena emango zien lurra irudikatzen buelta asko eman, ohean begirada eta besarkada asko gurutzatu ostean, amestutako guztia -bizi-maila hobea, lan-baldintza hobek, ordainsari handiagoa edo, beste barik, horretatik guztitik zerbait bermatuko zien lanpostua lortzeko aukera...- bilatzeko tokirik onena Bizkaian zegoela ondorioztatu zuten, eta burdin meatzeak aukera ona zirela. Probintzia mugakideetan (*Santander, Burgos, Leon*) nekazarien artean zegoen miseria eta gosearen ondorioz, familia askok arriskatu egin behar izan zuten, baita bizia bera ere, beren behartasun-egoeratik ateratzeko.

Eta egun batean, familiako aitak panazko galtza bakar-rak, alkandora higatua baino higatuagoa, domeka larre-

gi zituzten zapatak, eguzki asko eta hotz gehiago jasan zituelako kolorgetutako txapela jantzi, bere garbitasun pertsonalerako zuen apurra sartu izkinetan metalezko erremateak zituen larruzko maletan, eta geltokirik hurbilenera joan zen, ziurrenik familia-etxetik kilometro batzuetara egongo zena, kea zeriola triki-traka ibiltzen zen trena hartzera, hark aukeratutako probintziako hiri-buruan utziko baitzuen, kasu honetan, Bilbon.

Bilbo hiria abagune-lekua zen XIX. mendearen hondarrean eta XX. mendearen hasieran, non merkataritza industria bilakatu baitzen eta merkatariak industriari, bertan elkartu baitziren elektrizitatearen ekoizpena, ehungintza, telekomunikazioak eta garraioak, finantza-jarduera, automobilaren goraldia, ontzi-enpresak, kimika-, siderurgia- eta metalurgia-enpresak, eta, guztiak batera. Bertara iritsi zenean, enplegu duin bat lortzeko aukera topatu behar zuen, gutxienez familia osoa berriro batzeko balioko ziona.

Eta askok meategian bakarrik aurkitzen zuten hori. Batzuk, Bilbo inguruko meategietan: Miribillako meatze-barrutia zen, San Luis, Abandonada eta Malaespera hartzen zituena; gaur egun, bizitegi-auzo bihurtu dira, eta euren etheen zorupean zer dagoen gutxi dakiten familia gazteak bizi dira bertan. Beste batzuk, berriz, Trianoko meatze-arroan bizi izan ziren, oraingoan, Gailartan eta Zugaztietakoetan jarri dugularik arreta.

- 6 Denek aurkitzen zuten lan edo beharra, egon baze-goelako. Guztientzat. Baina baldintza penagarrietan: beste askorekin batera bizi behar zuten, enpresek beraiek jartzen zizkieten baina edozein gizakirentzat iraingarriak ziren barrakoiengan metatuta. Oheak ohol-tza baten gainean jarritako ohol soilak baino ez ziren. Batzuetan, arto-hosto lehorrez edo iratzez betetako zakuak erabiltzen zituzten koltxoi gisa. Ohea partekatzea zen normalena, *“bi pertsonak lo eginez ohe batean”*. Lo egiteko modu horri *“ohe beroen sistema”* esaten zitzaion. Horrek metaketa-maila kezkagarriak eragiten zituen.



Eta kamerari irribarre egiteko gogoia zuten oraindik

Zortetik handiena zeukatenek, denborarekin, etxebizitzita bat lortzen zuten, oso baldintza eskasekoa, leku gutxikoa, aireztapenik gabea eta higie- eta osasun-garritasun-maila oso txikikoa; eta behin familia batuta, beste batzuentzat ostatu bihurtzen zuten etxea, gelak, mantenua eta arropa-garbigeta eskaintzen baitzituzten pezeta gutxi batzuen truke, beren soldata eskasa apur bat biribiltzeko. Eta, jakina, baldintza higieniko negargarrietan, ondorioz ume asko hiltzen zelarik. Fase hori gaitzitzen zutenek ere aukera gutxi zuten bizi-itxaropen luzea izateko. Etxe berean familia bat baino gehiago bizitzea zen normalena, etxebizitza gutxi zeudelako eta horrela gastuak parteka zitzaketelako. Oso kontuan izan behar da, halaber, familia ugariak zirela, eta, beraz, gela bakoitzeko bizilagunen kopurua oso altua zela.

Testuinguru horretan, ezin bestela izan, etxeetako eta auzoetako kideen artean elkartasun- eta komunitate-sentimendua sortu zen. Eraikinak, barrutik, ez ziren maiz bertan bizitzeko egokiak, aterpetzeko baino ez zuten balio, eta, horregatik, bizitza kalean egiten zuten, eta lanaldia bukatzean, kalean elkartzen ziren, berba egiteko, eztabaidatzeko eta atzean utzitako herrietatik ekarritako kantu zahar haiek abesteko.

Beraz, garai eta egoera hartan sortu zen, indar handiagoz, meatzariaren figura, hainbat espezialitate eta kategoriatan, hala nola, errementariak, bide-forjariak, moiletako zamaketariak, arotzak, mekanikariak, makinistak, zerrenda-arduradunak, igeltseroak. Horien artean, harri-zulatzailak, zaldien arduradunak, behargin edo peoiak, laguntzailak eta langileburuak nabarmentzen ziren. Harri-zulatzailak edo artillariak egiten zuten lan kualifikatuena, zuloak egiteaz, lehergailuak jartzeaz eta leherketa eragiteaz arduratzen baitziren. Lan gogorra zen, arriskutsua, eta trebetasun eta indar handia eskatzen zuen, batzuetan, 5 ordu ere behar baitzituzten harkaitzean zulo bakarra egiteko; horregatik, oso ospetsuak izan ziren harri-zulatzailen lehiaketak, zuloak egiten onena eta azkarrena nor zen erakusteko, azken urteotan berreskuratu egin den ohitura.



Harri-zulatzailen lehiaketa 1910 inguruan Trianoko meategietan

Peoi edo beharginak arduratzen ziren leherketek erauzitako burdin mea zatitzeaz, aukeratzeaz eta kargatzeaz. Maila-zerrendan meatzaririk baxuenak eta ugarienak ziren. Immigrazio-mota hartako gehienak nekazaritzatik zetozen, landa-eremuan egiten zutenaren antzeko lana baitzen hura. Horrek eskulan merkearen etengabeko hornidura ziurtatu zuen. Horrela, konpainiek ekoizpenari prezio lehiakorretan eustea lortzen zuten makinerian inbertitu beharrik gabe, eta, beraz, meategi haien errentagarritasuna erabatekoa zen. Eta lantalde bakoitzaren buru langilezainak zeuden, patroiairen edo haren arduradunaren konfiantzazko pertsonak. Haien egitekoa lan edo eginbeharrak banatzea zen, betetzen zirela zainduz, eta gertatzen zen guztiari buruzko txostenak egitea, betiere langile bakoitzaren produktibitate handiena lortzeko helburuarekin. Ez zen ongi ikusitako figura, eta bazekiten, baina soldata handiagoak eta estatus hobeak agintzen zitzaiena zintzo betetzera bultzatzen zituen. Azken finean, ez ziren besteekin batera bizi, etxe propioa zuten gehiago kobratzen zutelako, eta ez zuten meategietako janari-dendetan saltzen zenaz elikatu beharrik. Balio egin behar zen.



Emakumeak dinamita-kartutxoak paketatzen.

Lan horrek, oso lanaldi gogor eta amaigabeekin, eguzkia irteten zenetik sartu arte, berez, soldata bakarrarekin, ez zuen familiaren biziraupena bermatzen. Horregatik, hain zuzen ere, familia-unitate osoaren laguntza behar zen, kide guztiek hasi behar zuten beharrean, aitak, amak eta seme-alabek ere bai oso txikitatik, guztien gutxieneko sostengua lortu ahal izateko. Denak, jakina, garai hartan sexuaren arabera zegozkien banaketekin antolatuta zeuden. Umeek, txiki-txikitatik, laguntzaile-lanak egiten zituzten bulegoen barruan, eta, 14 urterekin, meatzeetara joaten ziren zuzenean. Han, ura garraiatzen hasten ziren, txongil edo zurezko upeletan, meatzarietara emateko. Pikotxak eta hondeaitzurak sutegira konpontzera eroaten zituzten, mea-zati txikiak jaso eta beste zeregin xume, baina ekoizpenaren martxa onerako ez garrantzi gutxiagoko, batzuk egiten zituzten. Aldiz, neskek etxeko zeregine-

tan jarduten zuten, hala nola guztien arropa garbitzea, adabatu edo konpontzea, baita etxean apopilo zeuzkaten peoiarena ere, harrikoa egitea, garbitzea, zoruak distiraraztea eta gizona janaria meategira eroatea.

Bitartean, amak sukaldeko sua zaintzen zuen, egunero eltzekoa prestatzen zien etxekoei eta apopilo zituztenei, baita beste lan gogorrago batzuk ere, hala nola egur-enborrak moztea, gero etxetik etxe saltzen ziren ikatz- edo eskarabila-hondarrak batzea, zituzten abereei behar bezalako arreta eskaintzea eta beren dieta prekariora osotzeko zuten ortu txikia zaintzea. Ez dugu ahaztu behar haietako askok etxetik kanpo lan egitea beste erremediorik ez zutela, batzuk etxerbitzuan Bilboko burgesiaren edo Neguriko eta Areetako aristokraziaren etxeetan, eta beste batzuk meatzean bertan, mea-garbitzeetan edo harri-zulataileek ondoren minerala erauzteko leherketak egiteko erabiltzen zituzten dinamita-kartutxoak egiten, emakume izate hutsagatik mutil laguntzaileek baino gutxiago kobratuz.

Familia-unitate osoa biziraupenaren aginduetara egokitzen zen, ezinbestean, eta hartan emakumeak parte-hartze erabakigarria izan zuen; izan ere, lan gogor haiek egin zitzakeela argi eta garbi erakutsiz, emakume-nortasunaren eredu bat garatu zen emakume indartsu lez, guztiarekin ahal zuena, testuinguru haren barruan lanerako gaitasun nahikoa eta beharrezkoarekin, soldata bat gehiago etxera eramateko eta familia-kohesioari eusteko. Hala eta guztiz ere, garai hartako pentsamoldearen mugetatik ateratzen zen behargin estigmatizatu gisa gizartearen epaia jasan behar zuten, eta, are gehiago, ez ziren ez benetako langiletzat ez meatzaritzat hartzen. Edukitzeagatik, kontraturik ere ez zuten.

Guztiek, emakumeek, gizonak eta umeek, egunean 12 ordutarainoko lanaldiak zituzten, gehienak meategien barruan, lan-baldintza oso eskasekin eta soldata oso txikiekin. Soldata lan egindako egunetan bakarrik kobratzen zen; arrazoiren batengatik, egunen batean, ez bazinen beharrera joaten, ez zenuen kobratzen. Urtero, euriagatik bakarrik, laurogei eta laurogeita hamar egun bitartean geratzen ziren meatzariak lan egin barik. Dolores Ibarrurik, *"Pasionariak"*, *esan ohi zuen "meatzariaren emaztearentzat okerrera goizean jaiki eta euria ari zuela ikustea zela, bazekielako egun hartan ez zutela kobratuko"*, eta, haren ustez, urtean 160 egunetan ere galtzen zuten soldata arrazoi horregatik. Agian egoera puztu egingo zuen, baina egun batzuetan, euria egiten ez bazuen ere, aurreko egunetako euriteengatik nekez lan egin zitekeen, eta, beraz, ekoizten bazuten ere, ez ziren enpresak ezarritakora iristen, eta, ondorioz, ez zuten kobratzen.

Beraz, soldata lan efektiboaren eta bakoitzaren errendimenduaren arabera zen. Eta, azkenik, eta ez



Meatze-kantina baten birsorkuntza

garrantzi gutxiagokoa, txarteletan jasotzen zuten soldata, eta txartel haiek enpresak meategien ondoan beharginen eskura jartzen zuen dendan soilik erabil zitezkeen, eta, beraz, enpresariaren kuxara itzultzen zen beti soldata, eta enpresariarentzat meategiak negozio bat baino ez ziren, eta haiei ahalik eta etekin handiena atera behar zitzairen, langileen osasunaren eta biziaren kontura bazen ere.

Osasuna, behin hondatuta, modu paternalistan eta ongintzaren zentzu bitxi batez berrosatzen saiatzen ziren, eta hala ahalegintzen ziren enpresaburu oso katoliko haiek beren kontzientzia isilarazten. 1881eko urtarrilaren 21ean, Gallartako Buenos Aires muinoan eraikitako lehenengo Meatze Ospitalea inauguratu zen. Ospitale hark 66 ohe, ebakuntza-gela, X izpien gailua, kontsulta-gela, osaketa-gela eta hainbat laborategi zituen. Eraikuntza harekin batera, barrakoi batzuk eraiki ziren gaixotasun kutsakorrek artatzeko, hala nola tifusa, barizela edo astanaferreria, kolera...

8



Ospitale zaharra edo Prebentorioa, Gallartako Buenos Aires muinoan kokatua.

geroago, eta auzia Gorteetara ere iritsi zen, baina han ez ziren berba onetatik harago joan.

Gai arantzatsu hau amaitzeko, XX. mendeko lehen urteetan bakarrik hasi ziren, oso astiro, higienerari eta osasungarritasunari buruzko hainbat hobekuntza egiten, eta erosketak bakoitzak gura zuen establezimenduetan egiteko askatasunari ateak irekitzen ere bai.

Ospitale haren zuzendaritza Enrique Areilza doktoreak zuen. Osagile-talde bat zuen bere ardurapean, eta honako haiek zeuden taldean: Vicente Fidalgo, Felipe Llano, Cipriano Abad eta José María Somonte jaunak, eta Jesusen Zerbitzarien moja-talde bat. Azken horiek, ospitale hura eta beste batzuk zaintzeaz gain, etxean ere jagoten zituzten gaixok.. Anbulantziarik ez eta errepiderik ere ez zegoen garai haietan, istripuren bat izaten zutenak bizkarrean eroaten zituzten lankideek, angarila edo esku-ohe moduko batean, inoiz garbitzen ez zen toldo batez estalita. Horrela, dinamita-eztanda batek leherrarazitako meatzari bat eroan ostean ohatila zelan zegoen jakin ahal dugu, adibidez.

Gaixotasunak eta epidemiak oso ohikoak ziren hotzagatik, hezetasunagatik, arropa eskas eta kalitate txarrekoagatik, eta, horri, gaizki elikatutako pertsonen ahultasuna, higiene eskasa eta, oro har, meatzarien bizi-baldintza txarrak gehitzen zitzaizkion. Istripu edo ezbeharrek ere ugariak izaten ziren, besteak beste, luizi eta harri-erorketengatik, kontrolik gabeko leherketengatik, bagonetak harrapatu edo errailetik irtetengatik, eta abar.

Istripuak gertatzen ziren lekuaren arabera, zaurituaren hainbat lankidek esku hartu behar izaten zuten; izan ere, Gallartako Ospitalea eraiki zen tokia oso ona zen gaixotasun kutsakorretarako, baina oso gutxi pentsatu zen zaurituak hara eroan beharraz, eta ez ziren ezelan ere aurreikusi meategietatik ospitale hartara sarritan egin beharreko bidaia azkarrak. Lankideek, behartuak edo boluntarioak izan, gaixoa erroteko denbora asko behar bazuten, ez zuten lortzen egun hartarako ezarritako beharra egitea, eta, beraz, ez zuten kobratzen.

Behargin haien elikadura “askotarikoa”, makina bat bakterioz betetako eltze edo lapikoetan, babarrun, baba eta garbantuz osotua zegoen, hirugihar amerikar oneko anoa ñimiño batekin, eta hori guztia neurritz kanpoko prezioan. Menu horri pinta-erdi ardo gehitzen bazitzaion, nola edo hala, meatzariaren anoa osotuta zegoen, hurrengo otordura arte, non gehienetan jaki berberak errepikatzen baitziren. Behar-beharrezko gauzen garestitasunaren leloa etengabea izan zen Trianoko meatzarien elikaduraren gaiari buruzko aipamen guztietan, eta gauza haien barietate urria eta kalitate kaskarra ere bai. Egia esan, joralek ez zuten gehiagorako ematen.

Kanpotik ikusita eta mende bat baino geroago, harriagarria da meatzariak eta haien familiek beren aldarrikapenei ekitea ez esker txarreko lan-baldintzengatik, baizik eta enpresak ezarritako dendetan eskusiboki erosi behar izatearen tiraniagatik eta behar-beharrezko gauzekin, haiek ere inposatu egiten zizkieten eta. Meatzarien elkarteek 1890. urtean egin zuten greban, lan-borroketa beren emazte ausartek lagunduta, abusu haiek amaitzea lortu zen, etxebizitza aukeratzeko eta janariak erosteko langile edo beharginen



Burdin mea garbitzen. «Las morrocotudas» (Berebizikoak) esaten zieten.

askatasun zabalaren truke. Inozoki, uste izan zuten irabazia zutela beren gurarien partida, baina errealtatetik oso urrun zegoen hori.

Hori izan zen haien lehentasuna, baina aukera aprobetxatu zuten aldarrikatzeko, baita ere, lan-ordutegia hobetzea, lanaldia murriztea, zeina, 1890eko meatze-greba hartatik aurrera, hamar ordutan finkatu baitzen (*hamaika udan eta bederatzi neguan*), eta 1910ean greba ugari haietako beste bat egin ostean, bederatzi ordu eta erdian ezarri zen.

Langileburuek, gezurra dirudi langile-izaera berekoak zirenik, dendetan erosten jarraitzera behartzen zituzten, hertsatuz eta mehatxu eginez, horrela egiten ez bazuten, beren produktibitateari buruzko txosten negatiboen bidez kaleratuko zituztela. Elikagaien eskasia eta kalitate txarragatik ugazaben eta sindikatu hasiberrien arteko liskarrak gogortu egin ziren 6 urte

Aldaketak edo hobekuntzak oso azkar gertatu ziren gero. Lan-gatazkak areagotu egin ziren, eta langileen gizarte-mugimenduaren eta lehen greba orokorren ondorioz, errealtate berri bat sortu zen meatzaritzako lan-mundu txikian, nahiz eta atzerapenak izan, bai Estatuak, bai ondoz ondoko gobernu eta parlamentuek meatzearen eta meatzarien berezko arazoaren konponbideak etengabe atzeratzea ahalbidetu baitzuten.

Hori guztia da Meatzaritza Museoan *“ikusita ez genuena”*, baina gidariaren azalpenen bidez eta garaiko argazki eta tresnak ikusita asmatu ahal izan genuena. Izan ere, han garrantzitsuena pertsonak ziren, beren lan eta errebindikazioen bidez guk 100 urte geroago bertan denbora-pasarako, oroimenerako eta hausnarketarako une batzuk igarotzea ahalbidetu zuten gizon-emakumeak.

gizaki hilezkoak

urria 19, 2025 | **por Juan Carlos Ruiz de Villa**

Duela egun batzuk, Txinako desfile militarra baino lehentxeago, Txina, Errusia eta Ipar Koreako presidentek elkarrekin zeuden. Agintari haiek normaltasun osoz hitz egiten zuten hilezkortasunaz euriar hitz egiten duenak bezala, “orain 150 urte arte eta gehiago bizi daiteke” esaten zion Vladimir Putinek Xi Jinping Txinako presidenteari; txinatarrak, beti serio, ez zirudien ezer esaten zuenik, edo telebistan behintzat ez zitzaion entzun; baina elkarriketa han geratu zen. Hilezkortasunaz berba egiten zigorgabetasun osoz eta odol hotzez, batere giza duintasunik

gabeko lotsagabekeriak. Bizitzen, sentitzen... hasiak ziren milaka herrikide gazte zentzugabeko gerretan heriotzara bidaltzen dituzten bitartean, haiek hilezkortasunari buruz hitz egiten: zer lotsagabekeria, eta zer hipokrisia, eta zer... dena! Gizakiaren, gizadiaren... gaintetik daudela uste dute! Jainkoak direla uste dute, baina kontzientziarik gabeko hilkor doilor hutsak baino ez dira.

Historiak epaituko ditu, inork ez du negarrik egingo falta direnean.



"Intolerantzia zentzugabe eta krudelak ez diezagula mundu zabal eta askotariko honetan jende, paisaia eta kulturekin txunditu eta hunkitzen jarraitzeko ilusioa akabatu".

Egokia iruditu zitzaidan Araceliri hori helaraztea, maiatzaren 19 hartan, Kabulgo ospitaletik berak lagun-taldeari idatzi ostean. Bizirik zegoen ('mirari hutsez', esaten zigun), eta osatzen ari omen zen, Bam-go azokan berak eta bidaideek pairatutako tiroketaren ondoren.

Bi hilabete luzez hura osatzeko zain egon ginen. Uda ongi finkatua zegoen, agurrik eta ekipajerik gabe, Araceli itzulerako txartelik ematen ez den lekuren batera abiatu zenean.

Oroitzapenak metatzen zaizkit. Hainbeste ibilaldi, hainbeste mendi, hainbeste bidaia elkarrekin. Asko etortzen zaizkit gogora, baina batek begirada berezia merezi dit. Beraz, oroimen horretan arakatzen saiatuko naiz, eta duela urte batzuk Libanon elkarrekin egin genuen bidaia zoragarri bati letra jartzen.

Bidaia taldekoa zen, baina orduan taldea Araceli eta biok ginen. Beraz, gure eskura jarri zuten auto bat, turismo motakoa, ibilbiderako gidari-txofer batekin. Eta ibilaldietarako mendi-gidariak, neurri batean mendi-ibilak egin behar genituen eta.

Beiruten Corniche aldean ibili ginen paseoan ilunabarrean. Igan-dea amaitzen ari zen, maiatza ere bai, eta pasealekua jendez gainezka zegoen: familiak ume zalapartatsuekin, eta gazteek jaiegunaren azken orduak aprobetxatzen zituzten itsaso ondoan, batzuk kirola egiten edo arrantzan.

Biharamun goizean, gure gidari-txoferra zain genuen, herrialdean zehar gurekin joateko prest. 60 urte inguruko gizona zen, jatorra eta hiztuna, eta ondo berba egiten zuen gaztelaniaz. Kristau maronitatzat zeukan bere burua, eta berehala sumatu genion herrialdean erlijio musulman edo Islama praktikatzeko zutenekiko zelanbaitako ezinikusia. Kexu zen, besteak beste, kristauek baino seme-alaba gehiago dituztenez, etorkizunean musulmanak izango direlako Libanoko gizartearen gehiengoa...

Maasser el Chouf zedro-erreserban, gidari ofizial batek lagundu zigun lehenengo ibilaldian zuhaitz zoragarriak betetako baso trinko batean barrena. Han hiru mila urte zeramatzan bat seinaltatu zigun... Zedro zahar hura istorio askoren lekuko izana izango zen bere gelditasun isilean.

Hiru ordu pasatxoren buruan Barouk-era iritsi ginen, eta handik autoz itzuli ginen Maasser el Chouf-era gaua pasatzera.

Herri txiki eta lasaia zen, eta bertako biztanle gehienak drusoak dira. Ikusteko eta egiteko askorik ez zegoen herri hartan. Kanpoan mahai-pare bat zituen dendatxo batera hurbildu ginen, eta han egon ginen denbora-pasa, dendako andrea lagun genuela (hura ere drusoa, argitu zigunez), gurekin freskagarri batzuk eta arratsaldeko lasaitasuna partekatzerako eseri baitzen.

Baalbek-era bidean, Baroukeko zedroen artean ibili ondoren, Anjar-en gelditu ginen omeiatarren hiri zaharreko aztarnen artean paseatzeko, jada Bekaa haranean. Eta geldialdi bat ere egin genuen Tsaran, upategi bat bisitatzeko (zorionez, hura ez zegoen erortzeko zorian). Bertan, ardo dastatu eta botila batzuk

erosi ahal izan genituen, bidaiaren uneren batean lagun onak izan zitezkeelakoan.

Eta Baalbekera iritsi ginen; hura, irakurri eta entzun genuenaren ondoren, bidaiaren indargune bat izango zela pentsatzen genuen. Itxaropena, beraz, handia genuen. Eta fede ematen dut horretarako arrazoiak soberan zeudela.

Hiri txikian sartuta, zelanbaiteko kutsadura ikusi genuen eguratsen. Eguna zoragarria zen, eta inguruan ez zegoen industria-rik. Beraz, gure gidariari galdetu genion zergatik zegoen airean flotatzen zirudien hauts-mota hura; erantzunak ikaratuta utzi gintuen; Siriako bonbardaketek harrotutako hautsa omen zen; izan ere, Baalbeketik ikusten ziren mendien beste aldean zegoen justu...

Hiri hark eskaini zigun beste ezusteko bat, oraingoan atsegina, ostatu hartu genuen hotela zen, Palmira hotela.

Iritsi ginenean, itxita zegoela ematen zuen; etxetzar bikain, ora-in zaindu bako eta zartatu hartatik ez zen irteten ez argirik, ez soinurik. Txirrina jotzean, gizon zahar eta txiki bat irten zen atea irekitzera, eta barrura sartzera gonbidatu gintuen. Gero jakin genuen Ahmed zela, 1954tik hotelean lanean zebilena. Beste pertsonaia ospetsu batzuen artean, Persiako Sha, De Gaulle, Einstein, Cocteau edo Ella Fitzgerald ere han izan zirela jakin genuen.

Barruak luxu dekadentea uzten zuen agerian. Ia eraikin osoa itxita zegoela iruditu zitzaigun, eta solairuetako bat baino ez zutela erabiltzen. Ematen zuen gu ginela gau hartan ostatu hartu genuen bakarrik. Solairua areto handi bat zen, garai hobeak eza-gutuko zituzten alfonbraz ia erabat estalia, eta tapizeria aldatzea eskatzen zuten sofak. Ispiludun armairu pare bat eta zur iluneko mahaixko batzuk ziren hango altzari guztiak. Aretoaren inguruan geletako ateak zeuden. Hain zuzen ere, solairu hartan zegoen De Gaullek noizbait hartu zuena, 30. zenbakia, nik uste. Pentsatzekoa da bere garaian gurea zegoena baino egoera hobean egongo zela: leihoak gortina handi zahar eta higatuz apainduta zeuden, koltxoak oso deserosoak benetan (nire ustez, urte askoan aldatu barik erabili izanagatik) eta koloka zegoen aukiren bat ere bazegoen. Bainugela ez aipatzearren, zeren eta, txorota irekitzen zenuenean, hodian eta hustubideen kontzertua eragiten baitzenuen. Zorionez, ez genuen gogaitu genezakeen ondokorik ere.

Baina Baalbeken hondakinen aurrean zegoen hotel zahar haren xarma nekez alda zitekeen bizitokirik erosoeneren truke ere.

Aracelik eta biok erabakita genuen gure afari-festa hoteleko aretoan prestatzea. Halako leku batez gozatu beharra zegoen. Eta, gainera, hirian ez genuen afaltzeko batere leku atsegirik ikusi. Baziren janari lasterreko leku batzuk, non hartua genuen eguerdiko mokadua, baina besterik ez. Etxetik geurekin eroandako urdaiazpiko on bat geneukan eta goizean Tsarako ardo bikainaz ere hornituta geunden. Gozokiren bat besterik ez zitzaigun falta. Ilunabarrean, gune arkeologikotik irtenda, tea hartzera eseri ginen, eta artatu gintuen gizonari galdetu genion ea gozotegi on baten berri eman ziezagukeen. Eskertu genuen adeitasunez, tea bukatzen genuenean bere lehengusua dendara laguntzeko prest agertu zen, eta hura zela onena ziurtatu zigun. Ba ez dakit onena izango zen edo ez, baina fede ematen dut lehengusua dendako pastelak ezin hobeak zirela. Jakiak aretoan mahaixko baten gainean ipinita, isil-misilka jangelara jaitsi ginen, behar genuen baxeraren bila. Dena ilunpetan eta isilik zegoen,

ez zirudien inor zegoenik han. Gure txoferra bere etxera joana zen gaua pasatzera, Baalbeketik ez zen oso urrun egongo, eta, antza denez, Ahmedek hoteletik kanpo ematen zuen gaua (edo erabat diskretua zen eta ez zuen agertu nahi izan).

Amaiera ona izan zen zoragarria izan zen egun baterako.

Arratsaldean Bekaa haraneko harribitxia ezagutu genuen. Baalbek betierekoak, feniziarra, grekoa, seleukotarra, erromatarra, bizantziarra eta otomandarra izan zenak (eta une hartan Hezbo-laren feudoa zenak), erromatar aiurrien artetik paseo harrigarri eta zirraragarria oparitu zigun.



Erromatarrek K.a. 64an konkistatu zuten hiria eta bere historiako garairik garrantzitsuenari eman zion hasiera.

11

Gaur egun dirauten aztarnak zirraragarriak dira. Munduko aztarnategi erromatar handienetako eta hobekien kontserbatuetako bat izango da. Propileoen arteko sarrera zoragarria da. Jupiterren tenpluko sei zutabeak dira agian barrutiaren gauzarik adierazgarrienak. Tenpluaren neurriak irudikatzen dituzu 22 metro altu diren zutabe haiek ikustean. Ilunabarreko argi laranjaren artean haiek begiestea ahaztezina izan zen. Bakoren tenplua da ziur asko hobekien kontserbatuta dagoena. Baina multzo osoak du aparteko edertasuna. Behin eta berriz luzatu genuen denbora zutabeen, patioen, tenpluen... artean paseoan. Bakarrik geunden, ez zegoen beste bisitaririk, eta geure burua zoriontzen genuen leku hartaz goatzeko zorteagatik, ezelango ahotsik gabe, inolako giza presentziarik sartu barik kontenplazio-gune hartan.

Barrutitik irtetera gindoazela, bi neska gazte libanoar sartu ziren irribarre xarmagarri batekin, eskerrak eman zizkiguten beren herria bisitatzeagatik, eta gogo bizia erakutsi zuten guri argazki bat egiteko.

Baalbek ahaztezina!

Gaueko isiltasunean, Palmira hoteleko balkoi batetik hurbil zegoen Siriako tiroketen hotsa entzuten genuen.

Inguruko kale batean, polizia-autoek hiriko sarbidea kontrolatzen zuten. Iluntasunak beldur eta tristurazko ñabardura ematen zuen hain edertasun handiko eszenatoki hartan.

Biharamun goizean berriro elkartu ginen gure gidariarekin, kezkatuta zirudien erabat musulmana zen herri batean bakarrik utzi behar izan gintuelako

Ahmed adio esatera etorri zen (ez dakigu nondik), eta penaz utzi genuen etxetzar hura, hainbeste hunkitu gintuen hiri hura.

Paisaia zoragarrietatik igaroz, Afqako iturrietara iritsi ginen, eta, handik gutxira, Aaakoura herrira, non mendi-gidari bat gure zain baitzegoen eguneko ibilaldiari ekiteko. Gure ustez, berrogeita hamar urte inguruko gizona zen, garaia eta sendoa. Ordubetea Balaa izeneko leku batera iritsiak ginen, non ur-jauzi ikusgarri bat jausten baitzen kobazulo batetik putzu baten gainera, haren hondoa igarkizun hutsa zelarik. Lekua, haitzuloz bete, uraren zarata gorgariarekin, apur bat beldurgarria iruditu zitzaigun. Gero bidezidorretik aldendu eta luzaro ibili ginen harri handien eta belauetik gora iristen zitzaigun landaretzaren artean. Gizonak oso erritmo bizkorra zeraman, guk, orde, ahulezia-zantzurik erakusteko prest ez geundenez, atzetik jarraitzen genion txintik atera barik, baina mihia kanpoan genuela. Geroago bide atsegin bat berreskuratu genuen, eta herrixka eta haran batzuetatik igaro ginen, non naturak lurteko tapiz handi bat ehundua zuen lorez berandu baino lehen iritsiko zen udako oinatzen zain.

Geroxeago, gure gidariak galdetu zigun ea jateko gelditu nahi genuen. Ezetz esan genion, geroago egingo genuela. Handik pixka batera berriro aipatu zuen atsedean hartzearena, baina ez zitzaigun une egokia iruditu. Argazkiren bat ateratzeko distraitu eta bideko bihurtze batetik irtean gizona harri baten gainean eserita topatu genuen, izerdi patsetan eta aurpegi zurbilarekin. Izuturik, zerbait gertatzen ote zitzaion galdetu genion, eta aitortu zigun aspaldi gabe bihurtzeko ebakuntza bat egin ziotela eta ez zegoela ondo. Beraz, atsedean hartzen geratu ginen. Baina ez zirudien gizona ibiltzen hasteko adina hobetzen zenik. “Eta zer egingo dugu orain?”, esaten genion elkarri Aracelik eta biok, apur bat larrituta egoeraren aurrean. Inoiz ez zitzaigun halakorik gertatu. Mendi haietan barrena gidatu behar gintuen pertsonaz arduratu behar genuen geuk... Ez genekien zehazki non geunden, ez jarraitu beharreko bidea, ez nora iritsi behar genuen. Eta argi eta garbi laguntza behar zuen norbaitekin geunden. Panorama ederra! Zorionez, atsedenaldira baten ostean, gidariak apur bat onerata zirudien, eta ibilbidea laburtzea erabaki

zuen, errepide batera irteko laguntza eske. Errepidera iritsitakoan, ibilgailu bat geldiarazi eta alde egin zuen, gu han utzita, auto-stop egin eta Tannourinera eramanez gintzatela esanda. Haren etxera iritsi ginenean (gau hartan gidariaren etxean lo egin behar genuen), lasai aurkitu genuen, sofa batean zabal-zabal, kolorea onerata zeukan aurpegiarekin, bere emaztea eta gure txoferra lagun zituela. Gogoz afaldu genuen eta lasaitasun-sentipenarekin.

Gizon hark gidatu behar gintuen biharamuneko ibilaldian ere, baina, bistako arrazoiengatik, ordeko bat bilatu behar izan zuten. Gidari berria mutil gazte eta atsegin bat zen, eta harekin egin genuen bidea Tannourinetik, zedro-erreserbatan barrena ibiliz, beste erreserba bateraino, Bsharriraino joateko (Biblian aipatzen diren Libanoko zedro mitikoak ikusiz), ekainean kolore guztietako lore ugari estalita zeuden mendien magaletatik.

Trekkingaren azken egunean zedro ederrak utzi eta haran sakon eta berde batean, Qadisha haranean, sartu ginen: Erdi Aroko monasterio ugari daude han barreiatuta, batzuk oraindik erabiltzen dituztenak eta beste batzuk itxita. Haran hartan daude Ekialde Hurbileko monasterio-komunitate zaharrenetako batzuk. Hasiera batean, sakabanaturik zeuden eta nekez iritsi zitezkeen haitzulo natural haietan baldintza ezin hobeak zeuden bakardadean eta kontenplazioan bizi gura zuten monje eta eremutarrak. Geroago, gaur egun ikusi eta mirets daitezkeen kaperak eta monasterioak eraiki ziren.

Ibilbideari hasiera emateko, igoaldi txiki bat egin genuen Mar Lishaako monasterioraino, bere harlauza beltz misteriotsuarekin. Gero, etengabe gora eta behera ibiliz, beste monasterio batzuk ezagutu genituen. Batzuek fresko ederrak dituzte barruan. Uste dut Hawqako Andre Maria delakoan izan zela, Escobar abizeneko eremutar bat aurkitu genuen, ez dut gogoratzen espainiarrak edo hegoamerikarrak izan zela, inguru hartan urte batzuk eroango zituen eta, ziur asko hain isilik egoteaz nekatuta, hitz egiteko gogo handi samarra zuen.

Metro dezente igo ostean, Hawka herrixkara iritsi ginen, eta tea

eta atsedena hartu genituen. Venezuelan bizi izandako bi emakume ezagutu genituen han, eta gaztelaniaz oso ondo moldatzen zirenez, uste baino gehiago luzatu zen solasaldia. Baina ez zegoen presarik, eta beti merezi du berriketaldi lasai batek leku lasai eta eder batean. Beste ordu eta erdi geroago, estua zen eta ia inor ez zebilen errepide batetik, Qozhayako San Antonio monasteriora iritsi ginen, Libanoko zaharrenetakoa eta haraneko garrantzitsuenetakoa da. Hantxe esan genion adio gure gidariari, azken ibilaldi hartan aparteko adeitasunez eta begikotasunez lagundu zigun Elie mutil



gazteari. Mutilak ingelesez eta frantsesez hitz egiten zuen, Araceli ingelesez hobeto moldatzen zen, eta ni berriz frantsesez; beraz, mutila saiatzen zen guk aukeratutako hizkuntzan guri hitz egiten. Sarritan huts egiten zuen hizkuntzarekin, eta hirurok algaraka bukatzen genuen. Bide ederra eta dibertigarria izan zen, eta pena handia eman zigun agur hark. Beharbada trekkingaren amaieragatik ere bazen pena. Oraindik egunak geratzen zitzaizkigun Libanon, baina botak esekitzeak beti sortzen du nostalgia apur bat.

Erromesak ostatu hartzen duten eta eraiki berria zen monasterio batean igaro genuen gaua. Ez zen orduan jende asko egongo, zortzi oheko eta bi bainugelako gela zabal-zabal bat jarri baitziguten biontzat. Leku lasaia merezitako atsedenerako.

Monasterioak utzi, gure ibilgailuan jaisten joan kosta-lerroraino eta Tripolira hurbildu ginen, Libanoko bigarren hiririk handienara. Hiri hark liluratu egin ninduen, guztiz arabiarra da (feniziarren, erromatarren eta otomandarren eraginak ere izan dituen arren), dotorea eta aldi berean dekadente samarra. Hirira eta Mediterraneora begira dagoen muino batean, gurutzaden garaiko gotorleku bat, San Gilles gaztelua, bisitatu ostean, hiriaren alde zaharrean sartu ginen. Gozamina izan zen zoko animatu haietan barrena presarik gabe ibiltzea, harrizko etxe zaharrek lotsa barik erakusten dituzten kable bihurrituz eta lehortzen jarritako arropaz betetako kale estuetan barrena ibiltzea. Interesgarria izan zen, halaber, oraindik ere inguruan badauden antzinako hammam haietakoren bat ikustera sartzea eta meskitaren bat bisitatzea, gero portura hurbildu eta itsasoaren kresal-usaina hartzeko.

Beste egun batean Tiro eta Sidonen txanda iritsi zen.

Tiro, antza denez, antzinako feniziar hiririk garrantzitsuenaren izan zen. Kontinente-alderdi bat zeukan, eta beste uharte-alderdi bat, kilometro bat baino gutxiagoko itsasarte batez banatuak. Alexandro Handiak hiria setiatzean egindako istmo artifizialak elkartu zituen bi zatia. Gaur egun garrantzitsuenak hango bi gune arkeologiko bikainak dira.

Antzinako hiriaren ekialdean dagoen Al-Bass izeneko antzinako nekropoli feniziar batek eta nekropoli erromatar-bizantziar batek osotzen dute, egundoko garaipen-arku bateraino doan hiribide bikainarekin, akueduktuaz eta ondo kontserbatutako erromatar hipodromoaz gain. Zoragarria zen lautada zabal hartan begirada galtzea, zutabe, arku, estatua eta abarrek topo egiten uztea begiei, haien artean palmondo txiki eta segailak, pikondoak, hibiskoak eta beste landare batzuk hazten direlarik.

Bisitatu genuen bigarren gune arkeologikoa Al-Mina izeneko da, Tiroren uharte-alderdiaren kokalekuan dagoena. Al-Bass-ekoa baino txikiagoa da, baina ez edertasun txikiagokoa. Bizitegi-auzoak, bainu publikoak, galtzadak eta zutabeak topatzen dituzu, gehienak erromatar eta bizantziar garaikoak. Leku ikusgarria da, itsasoa bertan dela, zutabe-ilara ugari, heriotzorri zuri eta fuksiekin edertuak; lekua presarik gabe paseatzeko da, eskaintzen zaigun edertasuna astiro dastatuz.

Portura bidean, autoa gelditzeko eskatu genion txoferrari, duda barik hilerri musulmana ematen zuenaren ondoan. Kanpoko hor-



mak dozenaka gizonen, gehienak gazteak, erretratuez estalita zeuden, eta armadun jendearen marrazki batzuez ere bai. Gure zain egoteko esan genion gidariari, eta, haren protestei jaramonik egin barik, hilerriko atea zeharkatu genuen. Handia zen eta ondo zainduta zegoen. Baziren Hezbolaren sinbologia zuten banderak eta identifikatu ezin izan genituen beste batzuk.

Sarreratik urrun samar, gizon bat zegoen, zuriz jantzita, aulki batean eserita, eta, gu ikustean, zutitu eta guregana etorri zen zerbait zehatza jakin nahi ote genuen galdetzerako. Hilerria ezagutu nahi genuela esan genion, eta irribarre atsegin batekin gonbidatu gintuen horretara, baina hori bai, “argazkirik gabe eta isilik” esan zigun, “hildakoen bakea ez nahasteko”. Horrela egin genuen.

Irten ginenean, gidaria izuak jota topatu genuen. “Zer gertatu da?” galdetu zigun asaldatuta. “Ba, ezer ez”. Hilerrian gizonarekin izandako topaketaren eta esan zigunaren berri eman genion. Ia sinetsi ezinik, berriro galdetu zigun. “Hori bakarrik? Ez dizue besterik esan?”. Ez dakit zer pentsatzen zuen edo zeren beldur zen... Aracelik eta biok barre egin genuen disimuluz, eta autoan sartu ginen portura bideratzeko.

Han, kale estu batzuekin topo egin genuen, albo banatan solairu bateko etxetxoak, kolore desberdinez margotuak, zituztela; etxe xumeak ziren, baina ondo zainduak eta harmonia handiz koloreztatuak. Sufritu zuen gure gidariarekin adiskidetzeko, itsas ondoan zeuden jatetxeetako batean jatera geratzea proposatu genion.

Bai Tiron eta bai Sidonen kalean militarrek zeudela ikusi genuen eta tankeren bat ere aurkitu genuen aparkatuta.

Bi hirien artean errefuxiatu palestinarren kokaleku bat zegoen. Libanon dauden askotariko bat. Palestinako bandera batzuek iragartzen zuten herrixka, eta, itxuraz eragozpenik ez zegoen arren, eta zelanbaiteko jakingura ere bagenuela aitortu behar dut, ez zitzaigun egokia iruditu jendea zelan bizi zen miaztera sartzea.

Sidoneraino jarraitu genuen.

Sidon beste feniziar hiri garrantzitsu bat izan zen, Tiro eta Biblosen garai berean sortua, garai hartan merkataritza oparoa zuena. Itsas Gaztelua, gurutzatuen garaiko gotorlekua, zubi batez leho-

rrera lotzen den uharte txiki baten gainean dago eraikita. Dorrepare bat eta harresi bat besterik ez dira geratzen, baina dorreak ondo kontserbatuta daude eta kokalekua bikaina da.

Bitxia da han indusketarik ez egotea. Auzo-hiri den Tirok bezalaxe, antzinako biztanleen aztarnak izan beharko lituzke. Gabezia hori, dirudienez, hiriak XIX. mendean jasan zuen espoliazio izugarriak azaltzen du.

Portua utzi eta Erdi Aroko zokoetan sartu ginen. Leku liluragarria iruditu zitzaidan, bere kalezuloak bizitasunez beteak, non denda ugari aurki zitezkeen, batzuk kaleetako harrizko arkuez baliatuz jarriak, haien pean merkatariek salgaiak, gehienbat ehunezkoak, erakusten dituzte eta. Plaza bat ere aurkitu genuen, meskita zahar batekin eta hammamen bat ere bai kalezulo batean ezkutatuta.

Beirutera itzuli aurretik geldialdi bat egin genuen Libanoko gozoki paregabeak erosteko.

Gure gidari eta txofer izan zen gizonari adio esatea egokitzen zitzaigun. Ia bi astez paseatu genuen berarekin, eta, "jainkojale"-tik batzuk izan arren, laguntzaile ona izan zen.

Autobusa hartu genuen Biblosera iristeko. Munduan etengabe bizitza izan duen hiririk zaharrena da, baina badirudi hainbat hiri lehiatzen direla ohore horrengatik, hori bai, guztiak eremu geografiko berean daude. Edozelan ere, Biblos hiri garrantzitsua izan zen, Mediterraneo ekialdeko merkataritza-gunea.

Zokoa zeharkatu behar da porturaino iristeko. Zoko hura beste hirietakoen aldean zertxobait desberdina da; oso zaindua dago eta turismora bideratuagoa: mendebaldeko gustuko denda eta kafeek txukun betetzen dituzte kale estuak. Dena oso polita eta atsegina, baina agian beste hirietan ikusia genuen eta benetako-tasun-zigilu bat ematen duen tokiko bizitza barik.

Portuko Gaztelua XII. mendeko gotorleku bat da eta handik antzinako harresiak ikus daitezke. Harresien ondoan, beste garai batzuetako aztarnak daude. Badat Gebal tenplua Bibloseko zaharrena da, K. a. IV. mendekoa, Baal feniziar jainkoari eskainia. Erromatarren garaiko zutabe erraldoi batzuk daude, baita feni-

ziar hilobiak ere. Ez dira Libanon ikusi ditugun hondakinik ederrinak, baina itsasoaren ondoan egoteak xarma berezia ematen die; goiza beste bizitza batzuen aztarna artean igaro genuen lasai.

Pepe Fishing Club ospetsura joan ginen bazkaltzera: portuan dagoen lokal bitxi hura 60ko hamarkadan zinemako antzezleak eta gainerako jende dotorea biltzen ziren tokia da. Egia esan, otordua ez zen beste mundukoa izan, baina bai gotorlekura eta itsasora begira dagoen terraza zoragarri batez gozatzeko lekua.

Beiruten azken eguna museo bikaina bisitatzeko aprobetxatu genuen, ez da oso handia, baina ia goiz osoa berari eskaintzeko adina erakarri gintuen.

Downtown izeneko eremura iritsi, eta Muhammad Al-Amine meskitan sartu ginen, hiriko meskitarik garrantzitsuenen, baita San Jorge katedral ortodoxoan ere, bi erlijioak pozik utzi behar bagenitu bezala. Nehmaj plazatik gertu, alanbre-hesiekin eta kontrol militarrekin topo egin genuen. Agian iraganeko gatazken oroigarriak edo etorriko ziren beste batzuen seinaleak.

Hotelera bidean, liburu-denda txiki batean sartu ginen, eta han ere kafea har zitekeen. Haren ardura zuen neska gaztea gurekin berbetan hasi zen eta, bezero gehiago ez zegoenez, kafea berriketaldi atseginean luzatu zen establezimendua ixteko ordua iritsi arte. Hainbeste paisaia-edertasun, zedro eder, hondakin txundigarri, zoko liluragarri eta abarren ostean, ondo etorri zitzaigun Libanoko neska gazte batekin izandako solasaldi lasai hura, eta hark bere lanaldia bi turistekin selfie bat eginda amaitu zuen.

Zalantza barik, Libano leku ederra zen. Eta gurea bidaia bikaina izan zen.

Gero bidaia gehiago etorriko ziren Aracelirekin. Asko: batzuk mendian ibiltzekoak, beste batzuk gehiago hirietan ibiltzekoak, denak oroitzen bikainekoak. Baina herrialde hartakoa gogoratu eta hausnartu nahi izan dut, eta hartaz gozatu (bidaia bat ez baita behin bakarrik gozatzen), une honetan, gainera, bidegabeki pairatzen ari baita izugarrikeriaren bisita desiratu gabea.

Min ematen du haizea zedroen artean intzirika imajinatzeak, Balbeeko zutabeen arteko bolbora-usainak, zokoetan barrena dabilen Herioren itzalak.

Min ematen du Araceliren hutsuneak nire hurrengo bidaiarako poltsa prestatzen dudana bitartean.

Araceli, Libano, beti intolerantzia heriotza-epaiak emanez. Baina intolerantzia horrek ez du lortuko mundu zabal, anitz eta eder -batzuetan era jasanezinean ankerra baina ederra ere baden- mundu honetako paisaia, kultura eta jendearekin, batez ere jendearekin, gu harritzeko eta hunkitzeko ilusioa akabatzerik.

A. Larrañaga



anana-potoa

18 ekaina, 2025 | por Juan Carlos Ruiz de Villa

la denok ezagutzen dugu zer diren domeka edo igandeak Bilboko Plaza Barrian eta zelako poza nagusitzen den bertan. Umeek beren kromoak trukatzeko dituzte: "Bi hauek emango dizkizut beste horren truk, hori ez daukat eta". Liburu-saltzaileak oraingo eta lehengo liburak saltzen. Seiluen, billete eta txanpon zaharren salerosleak, eta antzina txoriak, kanarioak, perikitoak, txolarreak... eroaten zituzten txori-saltzaileak. Baita manta edo maindirea lurrera bota eta etxean soberan zegoen edo tailer batean topatutako guztia haren gainean jartzen zuten saltzaileak ere. Hori guztia taberna eta kafetegi ugari animatuta, askotariko pintxoak, txibierroak... dastatzeko aukerarekin, ardo bikain, bermut edo garagardoekin batera.

Abuztuko igande batean, Aste Nagusia baino lehen, emaztearekin jaitsi nintzen Areatzan barrera paseatzera, eta Plaza Barria hurbildu ginen, ohi legez. Hara sartu ginenean, arkupeetako izkina batean, andre bat ikusi genuen, mantala eta neguko zapatila lodi laukidunak jantzita, eskuak poltsikoetan, eta bere oinetan ohe-estalkia zuela saltzeko gauzaki batzuekin. Hiru pertxa, orain komikiak deitzen diren tebeo batzuk, giltza zaharrak, eta oroitzapenen kutxatik ateratakoak izango ziren objektuak. Eta haien guztien artean, ANANA POTO bat ere salgai zegoen.



Andre hark txikitan izan genuen ezagun bat ekarri zidan gogora, La Señá, Bilbo txireneko pertsonaia tipikoa eta oso maitatua, kalean topatzen zuen guztia etxean metatzen zuena, gero saltzeko.

Begira geratu ginen apur batean, koadro hura ikus-teko modukoa zen eta. Handik igaro zen gizon bat ohe-estalkiari begira geratu zen, eta alde egitera zihorean, esan zion andreari: "Eta anana-poto hori?". Andreak mespretxuz eta gogaitasun apur batez begiratu zion. Handik gutxira beste bat igaro zen, eta gero beste bat, eta denek itaun bera egiten zioten, eta andreak mespretxuzko doinu eta gogaituaren aurpegi berarekin bidaltzen zituen.

Azkenean, iritsi zen beste gizon bat eta azkar galdetu zion: "Eta anana-poto hori?". Andreak erronkari begiratu eta kopetilun erantzun zion: "Gabonetan semeari enpresak saski bat oparitu zion eta bertan anana-poto hau zegoen. Baina semeari ez zaio anana gustatzen, eta niri oparitu zidan, baina niri ere ez zait gustatzen eta saltzeko ekarri dut". Eta ahotsa gehixeago ozenduz eta oso haserre, bota zion: "Eta izorratzera Palankara, hona erostera etorri behar da!".

Erabateko mututasuna sortu zen, barre isilez betea. Ea nor ausartzen zen han karkaraka irriz has-tera! Jiratu eta, bizkarra emanez, andreak alde egin zuen lasai eta irribarretsu.

15

Gerra ala Bizitza

7 uztaila, 2025 | por Juan Carlos Ruiz de Villa

Haur baten jaiotza gurasoen maitasunaren eta ilusioaren emaitza da; zenbat maitasun, zaintza eta sakrifizio jartzen duten horretan! Haurdunaldian, ondorengo hilabete eta urteetan, zenbat poz eta kezka biziko dituzten! Eta zenbat ahalegin, ikasketa eta lan egin beharko duen ume horrek, gazte horrek, ongi hezia, prestatua eta arduratsua izango den pertsona heldu bihurtu arte.


Zenbat maitasun eta ilusio jarriko duten bera hazi eta hezten, gero beste pertsona batzuek, beren denboraren minutu bakar bat ere eskaini ez dioteneke, esateko "aberriaren alde" hil eta hila izateko gerra egin eta frontera joan behar duela. Baina eurak, hiltzera eta hilak izatera gazteak bidaltzen dituzten horiek, ez dira inoiz joango.

Hainbeste Maitasun, Ilusio eta Lanaren emaitza erabat hondatuko da hilabete gutxiren buruan, bizitzeko jaio ziren arren, eskrupulurik gabeko jendeak frontera bidaliko baititu heriotzaren bila.

"Ezerk ez du gehiago esaten gizarte bati buruz bere seme-alabak tratatzeko moduak baino" Nelson Mandela

RAMÓN CABRERA Y GRIÑÓ

“MAESTRAZGOKO TIGREA”



2 iraila, 2025 | por Jorge Ibor

Duela 15en bat urte, Amsterdamera egindako bisita batean, bertako gidari baten zerbitzuak kontratatu genituen. Albako dukea eta orduko Felipe II.a erregea aipatu zituen bere azalpenetan. Turista-lagunetako batek iruzkin bat egin zuen zelanbait iseka eginez eta esan zuen: “Errege Katolikoez geroztik, gure herrialdean gaitasun handieneko erregea Jose Napoleon izan da; tamalgarria da Elizak eta nobleziak ez uztea hari bere lana egiten”. Bertan zegoen beste batek esan zuen: “Hori doilorkeria bat da: edozein Borboi hobeia izan da eta, batez ere, egungo erregea, Juan Carlos I.a”.

Baina errege-etxeen “zozketan” zorte txarra izan badugu beti, bada beste guztiak gainditzin dituen kasu bat, Fernando VII.arena, ‘Errege desleiala’ (gaztelaniaz ‘*el Rey Felón*’) deiturikoa:

16

RAE. ‘Felón’ hitzaren sinonimoak gaztelaniaz: *traidor, desleal, aleve, alevoso, pérfido, bellaco, infame, indigno, falso, engañoso, perverso*.

GOMENDATURIKO LIBURUA. *El Rey Felón*. Egilea: José Luis Corral, Darocan jaiotako historialari ospetsua. Zaragoza probintziako udalerririk horrek merezi du bisita bat.

Fernando VII.a okerrenetakoa izan zen hil eta gero ere, bere oinordeko-tzarako Lege Salikoa indargabetzea agindu baitzuen azken orduan. Lege hori bere garairako aurreratua izan zitekeen arren, tronua emakume bati, bere alaba Isabel II.ari, ematen baitzion, azken ordura arte hautagai izan zen Karlos baztertzearen kontura izan zen. Izan ere, nobleziarik zaharkituenaren zati handi batek eta eliz hierarkia itxuragabeak lagunduta, ez zuen zalantzarik izan liberal isabeldarren aurka borrokatzeko, Gerrate Karlistak eraginez; EAEn eta Nafarroan bizi garen guztiok izan dugu Karlistaldi horien berri.

Baina gure bizilekutik hurbilekoak ez ezik, gudu-zelai gehiago ere izan ziren, eta horretan Katalunia eta Maestrazgoa, Teruelgo probintziaren ekialdean dagoen eremu geografiko eder bat, nabarmendu ziren, besteak beste.

Eskualde hartako borroketan pertsonaia bat azpimarratu behar da, ‘benetan odoltsu’tzat jotzen dena, zalantza barik galtzaileen alderdian borrokatu izanagatik; izan ere, irabazleen taldean egin izan balu, haren “balentriak” handietsiko ziren eta heroitzat hartuko zuten. Horrelakoez asko dakigu herrialde honetan.

Jakingo denez edo asmatuko zenez, Ramón Cabrera y Griñó-ri buruz (Tortosa 1806 – Londres 1877) ari naiz, “Maestrazgoko Tigrea” deitua; I. Maestrazgoko Dukea, I. Morellako Kondea eta I. Terako Markesa tituluak ere izan zituen, Karlos Borboikoak sortutako noblezia-tituluak, urte batzuk geroago Alfontso XII.ak aintzatetsiak.

Ramón merkataritzako marinel xume baten semea izan zen, eta semeak bost urte zituela hil zen hura itsasoan. Alargunak, debozio handikoa,

oso ume zela bultzatu zuen erlijio-ikasketak hastera. 1825ean jasotako herentzia batek bere eliz karreran aurrerapen handia ekarri zion, Tortosako apezpikuaren tutoretza izatera igaro baitzen; apezpiku hura, erabateko absolutista, Fernando VII.arekin ministro izan zen, baina, bere tutoretzapekoaren bokazio-falta argia ikusirik, uko egin zion apaiz ordenatzeari.

1833an, Morellako gudaroste karlistetan sartzea erabaki zuen (Morella da lasai bisitatzea merezi duen beste hiri bat), eta hango buruzagi ospetsuena zen Marcoval-en idazkari eta konfiantzazko gizona izatera iritsi zen.

Urtebete geroago, 1834an, Aragoi eta Valentziako tropa karlisten buru izendatu zuten, Manuel Carnicer jeneralaren agindupean. Urte bat geroago atxilotu eta fusilatu egin zuten Carnicer, eta haren ondorengoa izan zen Griñón, Aragoi Behereko bitarteko komandante jeneral gisa.

Cantavieja izeneko herri txikian basea jarrita (bisita interesgarria egin daiteke herri hartara ere), gotorleku bihurtu zuen herri hura eta bere tropak berrantolatatu zituen zentzu guztietan, baita homidura-kanaletan ere, herriaren kanoi- eta munizio-fabrika bat martxan jartzera iritsiz.

Hasiera batean, tropa liberalak nabarmendu ziren euren krudelkeriagatik, eta “Tigrearen” menpekoek, berriz, jarrera bihozberagoa zuten arearioaren zauritu eta presoekiko.

Dena aldatu zen, ordea, Griñónen gudarosteez, bera buru zela, Burjasot hartu zuten. Garaipena ospatzeko afari bat antolatu zuen, janari eta edari ugariarekin. Azkenburuko edo postre gisa, oso festa berezia antolatu zuen, eta preso guztiak fusilarazi zituen, baina txandaka, ospakizuna gehiago luzatzeko, benetako odol-orgiatzat jo zen ekitaldian.

Horrek zentzugabekeriaren katea abiarazi zuen, zein baino zein zitalagoa. Kataluniako kapitain jeneralak, isabeldarrak, Cabreraren ama atxilotu eta fusilatzeko agindu zuen. Cabrerak, bere aldetik, preso zituen lau emakume hil zituen ezelango begirunerik gabe, 18 urteko neska gazte bat barne, harekin maiteminduta omen zegoen arren.

Handik aurrera, dena areagotuz joan zen. Ez dut xehetasun gehiago emango eta Interneten argitaratutako lan anitzetara igorriko dut irakurlea. Jakina da zelan amaitu zen borroka. Eta herrietan eta bertako biztanleen artean izandako kalte eta triskantzak ere bai.

Ezagutzen ez duzuenontzako gomendio batekin amaituko dut: bisita ezazue Maestrazgoa, ibili han lasai eta aholkularitza onarekin, eta Cantaviejara nahitaez egin beharreko bisitan, gogoratu behin militar ezagun bat egon zela han, bere gogortasunagatik “Maestrazgoko Tigrea” deitua.

Eta Alcañiz eta Zaragoza lotzen dituen errepedetik bazoazte edo bazatozte, eta gerra bat, bereziki bertako herritarrentzat, beti gauza negargarria dela egiaztatu gura baduzue, ez utzi Belchite zaharra bisitatzeari. Egia da irudi batek mila berbak baino gehiago balio duela.

Artzentaalesko 100 landare

Ez dugu orrialde honen itzulpenik. Gaztelera ikusi nahi baduzu, egin klik "hizkuntza" menuan eta gero "gaztelera" aukeratu.

16 azaroa, 2025 | por asociado



17

laranjen eta mandارين eskaintza (2024-2025)

16 urria, 2024 | por asojubi


La empresa Caprichos de la Naturaleza, S.L. nos ha hecho llegar nuevamente una oferta especial para nuestros asociados referida a sus naranjas (desde finales de octubre) y mandarinas (ya disponibles) consistente en un descuento del **8% sobre su precio de venta por internet.**

Se trata de productos de la zona de Cullera (Valencia) de gran calidad que pasan del árbol a nuestra casa en 48 horas.

Las compras se pueden hacer a través de su página <https://caprichosdelanaturaleza.es/> incluyendo el código promocional que os hemos enviado por correo electrónico (el mismo que el año pasado).

Queremos resaltar que, dada la influencia del coste del transporte, el precio para pedidos de 15 kilos o más, tanto en naranjas y mandarinas como en la combinación de ambas, es mucho más interesante. Además, al ser producto natural, sin tratamientos ni aditivos, es de más fácil y larga su conservación.

«Para que nuestra fruta llegue a tu casa recién cogida del árbol, realizamos las entregas de las cajas de naranjas y mandarinas los martes, miércoles, jueves y viernes. **Los gastos de envío son gratuitos en la península.** En caso de realizar tu pedido fuera de España o en las islas, escríbenos un email (pedidos@caprichosdelanaturaleza.es) o llámanos por teléfono (601 052 415) y calcularemos el coste del envío.»



2025ko argazki lehiaketa: **irabazleak**

28 urria 2025 | **por asojubi**

Behin epea amaituta, hauek izan dira bozkatuenak.
Sariak Elkartearen urteko bazkarian banatuko dira.

18

lehen saria. Amanecer



bigarren saria. Arcachon



19

hirugarren saria. Bosque fantasma





ISRAEL versus PALESTINA

8 iraila, 2025 | por Javier Campo

Eguzki- eta hondartza-garaia da. Garagardo eta txosnen garaia. Etzaulki eta siesten garaia. Espartinak jantzi eta ilargiaren argitan kontzertuez goatzeko garaia. Gu, hemen, lekuri harrigarrienera joaten gara oporretan, aldeztatik aukeratueta edo gure arbasoen herrira, eta bitartean munduan 56 gatazka armatu AKTIBO daude 96 herritan, II. Mundu Gerraz geroztik kopururik altuena. Guk hondartza, mendi edo igerilekuan ondo pasatzen dugun bitartean, herrialde askotan jendeak nahikoa lan du egunero, orduro, minuturo, segundotan behin ondoan duten heriotzarekin batera bizitzen eta bizirauten.

Ezagunenak diren batzuk aipatuko ditugu, izan ere, horiek dira albisteekin betetzen gaituzten "hedabideei" interesatzen zaizkienak:

ERRUSIAREN ETA UKRAINAREN ARTEKO GERRA:

Gatazka hau, Errusiak eskala handian 2022ko otsailean egingandako inbasioarekin areagotu zena, Europan Bigarren Mundu Gerratik izan den gatazkarik handiena da.

ISRAEL ETA HAMASEN ARTEKO GATAZKA GAZAN:

2023ko urrian Hamasek Israeli egindako erasoaren ostean berpiztu zen gatazka, eta Israelek erasoaldia hasi zuen Gazan.

GERRA ZIBILA SIRIAN:

2011n hasi zen gatazka honek krisi humanitario larria eragin du eta nazioarteko hainbat eragile inplikatu ditu.

GERRA ZIBILA YEMENEN:

Saudi Arabiak zuzendutako koalizio bat eta Iranek babestutako matxino huthiak nahasten dituen gatazka hau kronifikatu egin da eta ez du konpontzeko itxurarik.

GATAZKA SUDANEN:

Sudango armadaren eta Laguntza Azkarreko Indarren (RSF) arteko gerra zibilaren ondorioz, milaka hildakoez gain, milioika pertsona lekualdatu dira.

SAHEL (AFRIKA) ESKUALDEKO GATAZKAK:

Hainbat talde armatuk, Al Qaeda eta Estatu Islamikoari lotutako batzuk barne, Nigerian, Malin, Nigerren eta Burkina Fason dihardute, ezegonkortasuna eta indarkeria sortuz.

KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOKO GATAZKA:

Herrialdearen ekialdeko eskualdeak gatazka luzeak jasan ditutalde armatuen presentziaren eta baliabide naturalen inguruko liskararen ondorioz.

"Telebistek" ematen dizkiguten gatazka horiez gain, tentsio eta krisi ugari daude lozorroan munduko beste leku batzuetan, hala nola Koreako penintsulan, edo Indiaren eta Pakistanen artean, edo Afganistanen bertan. Leku horietako egoeraren berri ez emateaz gain, existituko ez balira bezala baztertzen dira, eta guk eguzkitan etzanda jarraitzen dugu, erlaxatuta, sine-tsi nahi dugulako horrek ez duela gurekin zerikusirik. Ez gara ohartzen, edozein unetan eta edozein lekutan egonda, basoei ez ezik, herrialde osoari ere su emango dion txinparta piztu daitekeela. Oso gutxi kostatzen da liskar zaharrak berpiztea edo benetako edo fikziozko eztabaida berriak sortzea, fusil bat eskuan duzula, aurrean duzuna hil nahian edo zu eta zure-tarrak hil ez zaitzaten saiatzen zaren bitartean, munduko lekuri ezkutuenean zeure burua babestuz.

Baina gerrak jada ez dira lehen ziren bezalakoak. Teknologia, giza asmatuak eta gizarte-mutazioak daude gerra egiteko moduen eraldaketaren aurrean eta atzean.

Gaur egun konputazioan, adimen artifizialean eta teknologia espazialaren garapenean izandako aurrerapenak beste herrialde batzuen subiranotasunari erasotzeko aukera ematen digute, haien sateliteak blokeatuz, sare sozialetan biztanleak modu jakin batean pentsatzera bultzatuz gobernuari buruzko *'fake news'* edo albiste faltsuen bidez, etab. Errusia eta Ukrainaren arteko gerrak XXI. mendeko teknologia berrien eta XX. mendeko estrategia zaharren arteko bat-egitea frogatzen du, egunero.

Gerrak irudikatzeke, joan den mendean zinemara joan behar izaten genuen II. Mundu Gerrari edo Vietnamgo gerrari buruzko filmak ikustera, eta, jakina, guztiek propaganda-kutsu amerikarra zuten argi eta garbi. Gaur egunero eskaintzen digute hori telebistako albistegietan. Heriotza eta izu-ikara, zuzenean.

Gerran aldaketak sortzeko, sustatzeko, ezartzeko eta finkatzeko bi modu zehatz ditu asmamenak, eta aldaketa horiek eragina dute gerrako prozeduretan eta teknologian. Bigarren kasu horrek lotura zuzena du orain arte esandakoarekin; gerraren beharizanetara aplikatzeak irtenbide teknologikoak sortzen ditu, unean uneko beharizanetara berariaz egokituak, eta azkar konpontzen ditu gatazkan dauden edo etorkizunean izango diren arazoak. Bestalde, gatazkaren paradigmatan aldaketa handienetako batzuk ere sustatu ditu gizakiaren asmamenak, arazoei irtenbide sortzaile eta bakarrak emanez eta borrokarako moduak eta estrategiak errotik aldatuz.

Azkenik, gizartea gatazkaren funtsezko zati edo osagaia da, gizartea eta bere interesak defendatzeko sortzen baita gatazka. Gizarte-eraldaketek gizarteak defendatzen dituzten armadak eta haien borroka-modua ere aldatzen dituzte; ez dira gauza bera XVIII. mendeko estatu absolutista bat eta XXI. mendeko demokrazia liberal bat; ezta ere, gaur egun, mendebaldeko gizarteak beren liskar-arauekin eta nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin, edo Siria, Errusia edo Txina bezalako beste batzuk, beren kontura dabiltzan.

Gerrak beren burua eta beren interes legitimoak babestu behar zituzten gizarteak zeudelako sortzen ziren, beste batzuek

haien lurraldea erasotzen edo inbaditzen zutenean. Orain ez dago horren beharrik gerrak pizteko; aitzitik, politikari absolutista boteretsuen ahalegin espantsionisten bidez sortzen dira, eta ikaragarriko botere ekonomikoak izaten dituzte atzean, beren mozkinak eta boterea areagotzen ikusteko presio egiten dutenak.

Une batez ere ahaztu barik beste guztiak, gaur egungo odoltsuenetako batean jarriko dugu begia, eta inoiz baino hobeto esana dago *"odoltsuenetako"* hori. 60.000 hildako baino gehiago, tartean 20.000 ume inguru, kalkulatzen dituzte Israel eta Palestinaren arteko gerran. Ez dut ahazten gerra honen jatorria **HAMAS** mugimendu islamista terroristak bereizkuntza barik egindako erasoak izan zela. 2023ko urriaren 7an, israeldarrek Simiat Tora festa ospatzen zuten bitartean, fedayin palestinarren talde armatuak, batez ere Hamasekoak eta Palestinako Jihad Islamiarrekoak, Israelen aurkako erasoak egin zuten Gazako Zerrendatik. Kohete-andana batekin hasi zen, eta kamioneta, motozikleta eta parapente motorizatuak erabiliz komandoen erasoarekin jarraitu.

"Al-Aqsako Uholde Operazioa" izeneko erasoak ezustean hartu zuen Israel, nahiz eta Yom Kippur Gerraren berrogeita hamargarren urteurrenaren bihamamenean gertatu. Miliziano palestinarrek 251 pertsona bahitu eta 695 zibil israeldar (*36 adingabe bane*), 71 zibil atzeritar eta 373 soldadu eta polizia hil zituzten.

Handik gutxira, Israelek historia modernoko bonbardaketa-kanpaina suntsitzaileenetako batekin erantzun zuen, eta Gazako Zerrenda inbaditu zuen urte bereko urriaren 27an.

Atzera begiratzen badugu eta Hamasen erasoaren aurreko egoeran jartzen bagara, oso zaila da sinestea, Israelgo inteligentzia-zerbitzuez ari garela -munduko garrantzitsuenetako- zat jotzen baita, ez bada garrantzitsuenen-, talde terroristak baten berehalako erasoaren berririk ez izatea. Nire ustez, ez da sinesgarria Mossad batere oharu ez izana gainera zetorkienaz. Baina gertatu zena gertatu ondoren, beharrezkotzat jo al dezakegu Israel Palestinako herriari ematen ari zaion erantzun



Haur palestinar batek irribarre egiten du peluxeeko hartz baten ondoan, Israelgo armadaren bonbardaketa baten ostean, Rafah hiritik mendebaldera dagoen Al-Mawasi zonaldean. © dpa Picture Alliance



2024ko otsailaren 25ean, Palestinako haur-talde batek, eltze hutsak eskuetan, janaria eskatzen du Rafah-ko hesi baten atzean. Abed Zagout/Anadolu via Getty Images.

22

muturreko eta neurrigabea? Edo aitzakia gisa hartu du Hamas behin betiko desagerrarazteko helburua eta hasieratik benetan nahi zuena -Palestina osoa suntsitzea- egiten ari da, edo okerragoa dena, biztanle guztiak akabatzea okupatutako lurak anexionatzeko?

Ia bi urte geroago, egunero dozenaka hildako daudelarik palestinar zibilien artean, 60.000 baino gehiago guztira, potentzia handietako gobernuak, hartu beharreko jarrerari buruz ados jarri ezinik, Europa lokartu eta koldar batekin, orain hasi dira esnatzen eta Israelekiko jarrera aldatzen. Israelgo buruzagi juduei egin diezaieketen presioa funtsezkoa da basakeria geldiarazteko, baita ile horiko eta zementu armatua baino aurpegi gogorragoko zenbait agintariren “boutadeak” ere, herrialde suntsitu hori, diru amerikarrarekin, noski, “Ekialde Ertaineko Riviera” distiratsu bihurtzea komeniko litzatekeela iradoki baitute, beren herritarrek uda bertan igaro dezaten. Burutazio ederra. “Aquapark bat Marina D’Or estiloan”. Baita 20 euroren truke, *souvenir* gisa, odoldutako hondakin-zatiak erosteko aukera ere. Apoteosikoa, ez balitz beldurgarria irudikatze hutsa ere.

Krimen ikaragarri horren berezitasuna, eta are izugarriagoa egiten duena, zera da, Israelgo armada bera dela biztanleria zibilari egindako erasoen frogak erakusten dituen, harro-harro, hedabide ofizialen eta bere soldaduek erabiltzen dituzten sare sozialen bidez; beraz, indargabe eta zer egin ez dakigula, zuzenean ikusten dugun historiako lehen genozidioa izango litzateke.

Israel Palestinarekin egiten ari dena genozidioa, garbiketa etnikoa dela uste duzun horietakoa al zara? Ala Israel bere burua defendatzen ari dela eta urriaren 7ko hasierako eraso terroristari erantzuteko bere erasoak proportzionatuak direla konbentziturik daudenetakoa zara? Herri oso baten eta, batez

ere, haurren desnutrizio erabatekoaren irudiak ikusi ondoren izututa dauden horietakoa zara? Ala irudi horiek manipulaturik daudela eta gosetea gezur hutsa dela uste duzun horietakoa zara?

Askotan bezala, irtenbideak barrutik etorri behar du eta bi erakunde israeldar izan dira lehenak ozen eta argi esaten: B’Tselem (*Lurralde Okupatuetan Giza Eskubideetarako Israelgo Informazio Zentroaren laburdura*) eta **Physicians for Human Rights** (*Giza Eskubideen aldeko Medikuek-Israel*). Bi txosten argitaratu dituzte, dokumentazio- eta ikerketa-lan zehatz batean oinarrituta, eta **Israel Gazako herri palestinarren aurka genozidioa egiten ari dela** ondorioztatu dute. 1944an Rafael Lemkin jatorri juduko poloniar akademikoak definitu zuen lehen aldiz genozidio-delituak (**genok** grekoz ‘enda’ edo arraza esan nahi du, eta latinezko **cidi** erroak ‘hiltzea’), baina garai hartan ez zen nazioarteko zuzenbideak aitortutako kategoria bat. Izan ere, 1945ean, Nurembergeko epaiketan -non, bide batez, naziek juduen aurka egindako krimenak epaitu baitziren- definitu zen genozidioa “*nazio edo talde etniko baten suntsiketa*” gisa.

Genozidioa talde nazional baten aurka zuzentzen da entitate gisa, eta gauzatzen dituen ekintzak gizabanakoen aurka egiten dira, ez bakoitzaren nolakotasunengatik, baizik eta talde horietakoak izateagatik soil-soilik. Genozidioa ez da helburu bat lortzeko baliabide bat, bere horretan helburu bat baizik.

Bi txosten horiekin, barrutik, beste aurrerapen historiko bat lortu nahi da giza eskubideen komunitatearen ahaleginetan, Israelgo agintariei exijitzeko erantzun dezatela palestinarren aurka egiten dituzten krimenei buruz. Txostenak Gazako zentro medikoen aurkako eraso zuzen eta bereizi gabeak dokumentatzen ditu, laguntza medikoaren blokeoak, Gazako Zerrendan

larri zauritutako edo gaixo dauden palestinarren kanporako ebakuazio medikoen murrizketa arbitrario eta orokorrak, eta osasun-langileen atxilotetak, tortura eta hilketak.

60.000 hildako baino gehiagok -eta horien artean 20.000 haur baino gehiago daude (haien zenbaketak ez ditu militanteak eta zibilak bereizten, baina Ministerioak esaten du hildakoen erdiak baino gehiago emakumeak eta haurrak direla)- garbiketa etniko posible bati buruz gogoeta egitera bultzatzen naute. Gaur egungo haurrak hilez, 20 urte barru haur horiek, jada gazteak, berriro israeldarrei aurre egiteko moduan egotea bukatuko litzateke. Hori, era bertsuan, Herodes izeneko batek asmatu zuen, zeinek, zentzu etnikoan judua ez bazen ere, judaismora konbertitu eta Judea 40 urte baino gehiagoz gobernatu baitzuen. Zalantzaren bat baldin bazegoen operazio honek Hamaseko kideak Gazan suntsitzearekin zerikusi gutxi edo batere ez duela, era guztietako indarkeria indiskriminatuak eta gosearen bidez biztanleria zibila zeharo ahultzeak gezurtatu egiten dute Israelgo gobernuak dioena.

Duela oso gutxi arte, **Estatu Batuek** eta Europako zenbait herrialde garrantzitsuk, hala nola Alemaniak, Frantziak, Italiak edo Erresuma Batuak, **ezkutu diplomatiko bat eskaini diote Israeli**, eta badirudi ezkutu horrek hango buruzagiei zigorgabetasuna bermatzen diela krimenen aurrean.

Orain, gerra hasi eta 20 hilabetera, 25 herrialdek, Britainia Handia eta **Frantzia** barne, adierazpen bateratu bat egin zuten astelehenean, **Israelen** gainean presio pixka bat egiten duena, esanez **Gazako** gerra "orain amaitu behar dela eta Israelen nazioarteko zuzenbidea bete behar duela". Australia, **Kanada** eta Japoniako kanpo-harremanetarako ministroek adierazi zuten, "Gazan zibilen sufrimendua maila berrietara iritsi da". "Laguntza-jarioa" gaitzetsi zuten, "baita oinarizko beharriak, ura eta elikagaiak, asetzea bilatzen duten zibilen hilketa ankerra ere, umeena barne". Deklarazioak "ikaragarritzat" jo

zuten beretzat eta haien familientzat elikagai bila zebiltzan 800 palestinar baino gehiagoren heriotzak, Gazako Osasun Ministerioak eta NBEko giza eskubideen bulegoak argitaratutako datuen arabera.

"Israelgo gobernuaren laguntza emateko eredia arriskutsua da, ezegonkortasuna elikatzen du eta gazatarrei giza duintasuna kentzen die", dio adierazpenak. "Onartezina da Israelgo gobernuak biztanleria zibilar oinarizko laguntza humanitarioa emateari uko egitea. Israelen nazioarteko zuzenbide humanitarioaren pean dituen betebeharrak bete egin behar ditu", gaineratu zuen. Berandu eta nahikoa ez. Netanyahu adierazpen horiek garrantzirik gabeak iruditzen zaizkio, bere buruari ezarri dion ibilbidearekin jarraitzen du, eta hau genozidioa dela esatea garaiz kanpoko iruditzen zaio, uste osoa baitu Israelgo Estatuaren subiranotasunaren alde ari dela jokatzeko, nahiz eta bere ekintzak Nazioarteko Zuzenbidearen mugetatik eta gizatasun-adierazgarri guztietatik kanpo egon.

Gerra, funtsean, gauza txarra da. Horren ondorioak ez dira gerra egiten duten estatueta mugatzen, baizik eta mundu guztiari eragiten diote, baita guri ere. Beraz, eraso-gerra bat hastea ez da soilik nazioarteko krimena; nazioarteko krimen gorena da, eta beste gerra-krimen batzuetatik honek bakarrik bereizten da: krimen horietan guztietan metatutako gaizkia bere baitan izateak. Ez dut ahazten, ezta segundo batez ere, Hamasek zer egin zuen, Hamasek zer ordezkatzeko duen eta talde terrorista bat alboan izateak zer esan nahi duen, batez ere estremismo armatuen eraginez nahiko asaldatuta dagoen eremu hartan.

Eta pasibotasuna, "hori ez dagokit niri", orokorturik dagoenez, eta niri ez zaidanez artaldearekin ibiltzea gustatzen, argi eta garbi esango dut: "Israel Palestinarekin egiten ari dena gerra-krimena, genozidioa da, eta Hamas, talde terrorista bat inor izatekotan, desagerraraztea baino gehiago garbiketa etnikoa da lortu nahi duena". Amaitu egin behar du, orain.

23



Gizon bat oinez al-Shifa ospitalearen inguruan, Gazako iparraldean, Israelgo armadaren eraso baten ostean.
© dpa Picture Alliance

elkarriketak Elkartean

Lorenzo J. Ibáñez

13 iraila, 2025 | por asojubi



Turol Jones, un artista de cojones from Villanueva del Cascahal, República Independiente de Mi Casa, vía wikipedia Commons.

24

Pandemia baino lehenagotik hasi ginen Aragoiko gune erakar-garri batera, **Teruelgo Maestrazgora**, txango bat antolatzea pentsatzen.

Uste dugu ordua iritsi dela asmo hura gauzatzeko.

Horretarako, Zaragozan egoitza duen turismo-enpresa baten aholkularitza eta laguntza bilatu ditugu, berari buruz oso erreferentzia onak ditugu eta: **Zaragusta** (www.zaragusta.com)

Bere CEO eta sortzailea den **Lorenzo J. Ibáñezekin** izan dugu elkarriketa. Espero dezagun, irakurri ostean, gure elkartekideek, baita Euskaditik kanpo bizi direnek ere, jarduera honetan parte hartzeko izan dezaketen interesaren ondorioz, jarduera hau burutzeko talde nahikoa osotzea.

Asojubibbk: Lorenzo, gaian sakon sartu aurretik, esaguzu zer-bait zutaz, zure prestakuntzaz eta esperientziaz.

LORENZO: Kaixo, Jorge! Niretzat, batez ere, atsegin handia da zuek bezainbeste inplikaturako talde bati gure zerbitzuak eskaintzea turismo-enpresa gisa. Horregatik, bidaia hau erronka handi bat lez hartzen dut, eta ilusio handiarekin diseinaturako ibilbidea da. Ni ekintzaile zirkunstantziala naiz, Zaragozako Unibertsitatean Artearen historialari gisa prestatua, eta irakasle izateko bokazioarekin. Nire abentura profesionala ostalaritza turistikoaren munduan lanean hastearekin abiatu zen. Hain zu-zen ere, nire lehen destinoetako bat Maestrazgoa izan zen, Vi-llarluengo ondoko hotel batean arduradun gisa lan eginez. NH, Zenith edo Catalonia kateetan lan egin ondoren, nire benetako bokazioari ekin nion, Zaragozan bisita gidatuen enpresa bat, Zaragusta, sortzea, denborarekin Aragoiko autonomia-erkidego osora zabaltu dena. Bestalde, turismo-irakasle gisa egin ahal izan dut nire karrera irakaskuntzan, langabeentzako profesio-naltasun-ziurtagirietako ikastaroetan. Horrek guztiak turismoari buruzko 360 graduko ikuspegia izateko aukera ematen dit.

Asojubibbk: Halaber, uste dut interesgarria dela sortu zenuen enpresaren alderdirik garrantzitsuenak ezagutzea: noiztik ari den, nortzuk zareten, jarduera ohikoenak, etab.

LORENZO: Enpresa, ideia gisa, 2008an sortu zen, Zaragoza hi-riak nazioarteko erakusketa bati aurre egin behar izan zionean eta turismo-azpiegitura garrantzitsu bat behar zuenean. Azke-nik, ideia 2017an gauzatu zen, bisita gidatuetan merkatu-hobi bat betetzeko eta sektorea profesionalizatzeko. Hasieran talde txikientzako bisitak egiten hasi ginen, baina gero Civitatis be-zalako plataforma handiekin elkarlanean, eta horrek marka gisa ikusgarritasuna eman zigun; eta, geroago, erakunde publikoekin lan egin genuen, hala nola Zaragozako Udalarekin edo Aragoiko Gobernuarekin. Gaur egun, bisita turistikoak edo hiriko monu-mentu garrantzitsuenen bisitak egiten ditugu eta, azkenaldian, museo publikoak ere kudeatzen ditugu. Gure plantilla handitu egin da eta erreferentziazko enpresetako bat gara Zaragoza hi-rian.

Asojubibbk: Zalan-tza barik, Matarraña, Javalambre, Teruel, Al-barracín eta abarretara egiten direnez gain, Teruelgo ekialdera egiten diren bisitak, batez ere Maestrazgora, gehitzen ari dira azken urteotan. Zure irtzi adituan, zeintzuk dira Maestrazgoa bisitatzeko arrazoi nagusiak?

LORENZO: Aragoiko Autonomia Erkidegoaren barruan, zalan-tzarik gabe, Teruelgo probintzia oraindik ezagutzeke dagoen eremua da, eta bereziki Maestrazgoa, interes bereziko eremu naturala baita, masifikazio gutxikoa eta turistarentzat ezezaguna. Horrek balio handia ematen dio xarma handiko herriak ezagu-tzeko, gainera denbora luzez bakartuta bizi izan den jende ba-ten historia aberatsa du, eta bere historia eta ondaretik hori zuei erakutsi ahal izatea espero dut.

Asojubibbk: Ibilbidea Zaragustaren aterkipean joan gara lan-tzen, bereziki zurekin, enpresaren ordezkari gisa. Elkartekide



Diego Celso. vía wikipedia Commons.

bakoitzak laster izango du programa eskura. Bisita interesgarrienetako batzuk aurreratu ahal dizkiguzu azalpen labur batekin?

LORENZO: Zalantza barik, erakargarri turistiko ugari eskaintzen dituen bidaia honetan, Zaragoza barruan Salbatore Katedrala eta hango tapizen museoa nabarmenduko nituzke. Leku ezezaguna da, baina garrantzi historiko handia du, eta tapiz-bilduma munduko garrantzitsuenetakoa da. Zaragoza inguruan, Belchite herri zaharra ezinbestekoetako bat da, bere hondakinetan oraindik ere uler daitekeelako Gerra Zibilararen historia. Terueli erreparatzen badiogu, Teruel hiriburuaren magia nabarmenduko nuke, musulmanek mudejarrean lagatako eraginagatik, baina baita bertako eraikin modernistengatik ere. Hala ere, leku nagusia Maestrazgoa izango dela uste dut, parke geonatural ikusgarria baita, bertan daude eraketa geologiko bereziak (Montoroko Organoak), Pitarque ibaiaren sorburua edo Mirambel edo Cantavieja herriak, non denbora gelditu geratu dela ematen duen. Bertako eskaintza gastronomiko guztia ere ezin dugu ahaztu: Zaragozako ortuari edo barazkiak, Teruelgo urdaiazpikoa, boilurra eta, nola ez, ardoak.

Asojubibbk: Berba egiguzu, mesedez, honelako ekitaldi bat antolatzeak duen konplexutasunaz.

LORENZO: Jakina, hain bidaia pertsonalizatua antolatu ahal izatea, zalantza barik, prozesu konplexua izaten da. Gure kasuan, Aragoiko gida ofizial gisa dugun eskarmentuan oinarritzen gara. Bidaia-agentzia bat ez garenez, are konplexuagoa da, ez baitugu tarifak negoziatzeak eskatzen duen esperientziarik, baina hori gidari gisa dugun ikuspegiak konpentsatzen du, beste batzuetan funtzionatu diguten txangoak, jateak eta ostatuak aukeratuz. Guretzat erronka bat da, eta hain konbentzionalak ez diren baina erakargarriak diren lekuak eskaintzeko aukera gisa hartzen dugu.

Asojubibbk: Gure aldetik, eta amaitzeko, txango eder honek behar duen bezainbesteko interesa piztea nahi dugu. Euskaditik kanpo bizi direnentzat ere bai, beraien zain izango baikara Zaragozan, jasoko duten zerbitzura egokitutako prezioarekin. Giroa zoragarria izango da eta ingurua oso interesgarria da. Lorenzo, beste zer-bait erantsi nahi duzu?

LORENZO: Zuekin batera, lurralde honek eskaintzen dituen mirariez gozatzea espero dugu. Aragoiko enbaxadore gisa egiten dugun lanaren alderdi gehiago ezagutu nahi badituzue, gure web-orria zaragusta.com eta gure lan guztia islatzen duen web-orria aragusta.es azter ditzakezue.

Bestalde, hemen duzue nire profil profesionala ere:
<https://www.linkedin.com/in/lorenzo-j-ibáñez-espiago-0b0b0b57/>

Mila esker eta laster arte!



Fernando. vía wikipedia Commons.

CONVERSACIONES EN ELKARRIZKETAK ELKARTEAN – ERANSKINA

Azkenean, Elkarateak uko egin dio txango hau antolatzeari, oso erakargarria den eta bere antolaketan ordu asko eman ditugun arren. Horretan, bereziki, turismoaren egoerak eragin du, eta horrek hoteletan izan duen ondorioak, honako hauetan islatu denak:

- Prezioen igoeran, batez ere taldeentzat.
- Negoziatzea onartu dutenek eskatutako fidantzetan, betiere, gurea bezalako kolektibo batentzat, erreserbak aurretiaz denbora gehiegiz berretsi beharrekin.

BFaren dirulaguntzetarako mugek ere eragina izan dute; izan ere, egun bakarreko txangoetarako bakarrik dira orain.

Argi utzi nahi dugu elkarrizketa ugari izan ditugula Lorenzorekin, eta horietan guztietan elkarlanerako jarrera bikaina izan dugula, Zaragozan hasi eta bertan bukatzeraino ibilbide osorako haren konpainia zegoelarik programatuta. Antolaketari ordu asko eskaini dizkion arren, ez digu ezelango kopururik fakturatu nahi izan. Berarentzat gure esker on guztia, eta Aragoiaren haren zerbitzuak erabiltzeko gomendioa egiten dizuegu.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu Ikea Bidaiek-eko Paulari egindako ahaleginagatik, azkenean harengana jo bainuen, baina ezin izan zuen arazoizko eskaintzarik lortu.

Azkenik, garbi utzi behar dugu, prezioa eta baldintzak kontuan hartuta, eskaintza ona jaso dugula Zaragozako Sercotel Plaza Feria hotelaren aldetik, eta gure kolektiboarekiko abegikor izan dela.

Prestatutako programa doa honekin batera, norbaitek bere kabuz egin nahi badu. Uste dugu oso gomendagarria dela.

TORAJEN LUR SAKRATUA

10 ekaina, 2025 | **por asociado**

Indonesia ez zen atentzioa ematen zidan destino turistikoa bat. Batez ere, eztei-bidaia baterako leku egokitzat hartzen nuen, Bali uharteko hondartzak bereziki, baina egoera horrek herrialdeak distantzian bezain urrun harrapatzen ninduen denboran.

Zerbait gehiago ere ezagutzen nuen, munduko musulman gehien duen herrialdea dela, Java bezalako uharte bolkaniko askok eratzuten dutela, eta oso handia eta oso populatua dela. Halaber, ekuatore aldean dagoela, Asiako ekialdean eta Australiatik gertu.

Tira, Viajes Ikea Bidaia-eko Joserrak eskaini zigunean, ez zuen nigan interes handirik piztu. Baina berehala konbentzitu gintuen. "Etorkor" samarrak gara ezagutzen ez dugun leku batera joan behar dugunean.

Esan dezaket, itzultzean, destino hartaz idazteko gogo handirik ere ez nuela izan. Beti bezala, argazki-albuma egin nuen.

Baina, denboraren poderioz, atentzioa eman zidaten gauzen oroitzapenak indartzen joan dira, eta jarrera aldatuz joan naiz. Orain poztzen naiz joan izanaz. Izugarri.

Nire buruan oso ondo funtzionatu zuen talde baten sentsazio onak geratzen dira, Ubud-en edertasuna eta Torajen kultura harrigarria.



Toraja haur motorizatuak

Ez bakarrik Myanmar edo Japonia, Indonesia ere kontrastea da, beste zerbait aurkitzeko leku bat, eta aldi berean, ausartuko naiz esaten, haluzinagarria.

SULAWESI UHARTEA

Gure bidaian hiru uharte handi bisitatu genituen: Java, Sulawesi eta Bali. Bigarrenean jarriko dut arreta.

Haren forma bereziagatik, batzuek esaten dute garro edo erroak anarkikoki zabaldua dituen olagarroaren forma duela, portugaldarrek, mendebaldeko lehen kolonizatzaileek, "Zebeles Uharteak" deitu zitoten, hasieran bat baino gehiago zirela uste baitzuten.



Sulawesi uhartea

175.000 km² inguruko azalerarekin, ia Portugal kontinentala halako bi, 18,5 milioi biztanle ditu.

Hiriburua Makassar da, lurraldearen hegoaldean. Han dago aireportu nagusia, eta hara iritsi ginen Java uhartetik, hura bisitatu bainenuen lehenengo. Handik Balira irtengo ginen egun batzuk geroago.

Aerodromo modernoa utzi bezain laster, gure aurreko destinoarekin zegoen alde edo ezberdintasun sozial eta ekonomiko handiaz ohartu ginen; izan ere, industrien ordeztasun, nekazaritza eta meatzaritza dira Sulawesin nagusi.

Javan baino biztanle-kontzentrazio askoz txikiagoarekin, erlijio islamiarra da nagusi, bereziki hegoaldean; kristautasuna (protestantea) biztanleriaren % 17 baino zertxobait gehiagok praktikatzen du, horien artean Torajek; baina hinduistak eta budistak ere badira, eta animistak ere bai.

Indonesian ateismoa ez dago baimenduta, derrigorrezkoa da bere Konstituzioan jasotako bost erlijio ofizialeko batekoa izatea. Gobernuak bere erregistroak erabiltzen ditu erroldak egiteko.

Java eta Bali uharteekiko ezberdintasun handi bat azpiegituri dagokiena da, guk geuk nabaritu beharko genuena gure lekualdaketan, beti iparralderantz, Lur Garaiak deiturikoetaraino.

Lehenengo 140 km-ak errepidez izan ziren: errepide ona zen eta itsasoaren ikuspegi ederrekin, hark bereizten duelarik eskuinetara dauden Moluka uharteetatik eta ezkerretara dauden arroz-soro eta mendialdearen hasieratik.



Moluka uharteetako itsasoa

Orduan atsedenditxo bat egin eta zerbait jateko geratu ginen, zeren eta, une hartatik aurrera, ordokitik aparte eta oihan trinko batez inguraturik, aukerak nabarmen murriztuko baitziren.

Berririo abiatu ginen eguzkia sartzen ari zenean, herrialde haiek ordu-eremuaren arabera mugitzen baitira, ez gu bezala. Egiaztatu ahal izan genuenez, bizi-maila apalagoaren erakusgarri oso egoera txarrean zegoen errepidea zen, desnibel handiekin baina goranzko joerarekin, eta, ondorioz, falta zen ibilbidea egiteko, 150 km inguru, 6 ordu inguru behar izan genituen, narras samarra zen denda-supermerkatu-taberna moduko batean egindako geldialdia barne.

Autobusak, tamaina ertainekoa, galtzadak ez baitzuen tamaina handikoetarako aukerarik ematen, txarto asfaltatutako edo asfaltatu bako eremuen eta zuloen artean –asko lokatzaz beteak, tarteka euria gogotik egin baitzuen– egin zuen bidea, eta autobus- eta kamioi-kopuru aipagarriarekin gurutzatu ginen.

Ziurta dezaket bidean inor ez zela lokartu. Martxa motzak erabili beharrak eta gau itxia izateagatik erreferentzia barik egoteak abiadura handian zihoan sentsazioa eragiten ziguten, kamioiekin gurutzatzea ahalbidetzeko noizbehinka zuzenguneetan egiten ziren geldialdiek erakusten zuten eremu jakin batzuetan galtzaden zabalera oso txikia zela; ibilgailuaren inguruko itzalen eraginez, aurrekoak izu-ikara handiak hartuta zihoazen, eta atzekoek, berriz, ibilgailuaren suspentsio txarra jasaten genuen, eta beraz punpaka gindoazen, horrek bizkar-ri kalte egin eta aienetarako denbora gutxi uzten zigun (*).

Gaueko ordu txikietan iritsi ginen Toraja Misiliana hotelera. Azpimarratzekoak ziren hango logela handi eta erosoak, mantentze-lantxo batzuk behar bazituzten ere, lorategiak eta baratze dotoreak eta bi jangela zabal eta politak. Haietako batean, afarietan, bertako abeslari batek, teklatuan musikari bat lagun zuela, abesti melodiatsuak eskaini zizkigun, besteak beste, “*Bésame mucho*” (**) bezalako boleroak.

Indarberritu ondoren, hango ohiturak ezagutzeko prest ginen; aurreko bidaietan ikusitakoez bestelakoak ziren eta, ezjakina ni!, halakoez irakurri edo dokumentalik ere ikusi gabea nintzen.

(*) Ibilbidearen gogorra ikusita, Ikea Bidaiak-ek autobus-bidaiaren alternatiba aurkitu du, askoz erosoagoa baina garestiagoa. Makassar-en gau batez lo egitea da, eta Lur Garaietara hegazkinez joatea Lagalioko aireporturaino, eta hura helmugako hoteletik ordubete pasatxora dago. Herrialde hartako hegazkinen ordutegi-aldaketa ugariak, aurreabisu txikiarekin gainera, aipatutako Makassar hirian gaua ematea bezalako neurriak hartzera behartzen dute.

(**) Hotelaren webgunean (<https://www.torajamisiliana.com/about-toraja>) haren historiaren laburpen bat dago, eta interesgarria iruditzen zaidanez, hona ekarriko dut:

1981ean, ostatu bila zebiltzanak jasotzen zituen noizean behin Benjamin Tangkesalu zenak. Aire Armadako beterrano gisa, Toraja kultura partekatzeke grina zintzoarekin, turistei eta misiolariak ateak irekitzen zizkien beti, ezer kobratu barik.

Geroago, Indonesiako bidai-agentzia garrantzitsuena-tako batek galdetu zion ea bere urteroko taldeari ostatu eman diezaiokeen, eta, trukean, Benjamin jaunak etorrera haien onura ekonomikoa jasoko zuen.

Hasieran ez zuen eskaintza onartu nahi izan, bere helburu nagusia Torajara bidaiatzen zutenei ostatua eta ongietorria ematea baitzen, trukean ezer espero barik. Hala ere, familiari galdetu ostean, onartzea erabaki zuen, toraja askok lan duina izango zutela aurreikusten baitzuen, hala nola turismo-gidari edo txofer gisa, eta ekonomiak, oro har, hobera egingo zuela turista gehiagoren etorrerari esker.

1973an, Benjamin jaunak, beste zortzi beharginekin batera, gehienak senitartekoak, emaztea eta seme-alabak barne, lau gela zituen Toraja Misiliana hotela ireki zuen lursail txiki batean... MISILIANA izena bere bost seme-alaben izenetatik dator. Garrantzitsuena familia dela erakusteko, taldeak, hasieratik, oztopo guztiak gainditu zituen, ez bakarrik bizirik irauteko, baita aurrera egiteko ere.

Ez zegoen garbiketa-sailik, denak arduratzen baitziren logela garbitzeaz ostatu hartutakoak irteten zirenean. Ez zegoen sukalde-sailik, behin gelak garbitu eta gero denek lagundu behar baitzuten sukaldean. Gauean, talde berak hartzen zituen ostatu eske joandakoak, jangelan zerbitzatu eta segurtasuna ematen zien. Ostalaritzan alde zuzenetik prestakuntzarik izan ez arren, eta ekintza guztiak pasioan eta maitasunean soilik oinarritzen baziren ere, bezero asko iristen zitzaizkien.

Turismoak Torajan izan zuen gorakadaren ondorioz, bezeroak erreserba baieztaturik gabe iristen ziren, zortea izango zutelakoan. Bezero larregi izatea ez zen inoiz desabantaila bat izan, bakoitzak taldearen zerbitzurik onena jasotzen baitzuen eta, zain zeuden bitartean, beste batzuekin sozializatzeko aukera baitzuten. Prozesu horri esker, apopilo askok maitasuna topatu zuten eta ezkondu egin ziren. Orain arte, 11 bikotek baino gehiagok topatu dute maitasuna Toraja Misiliana hotelean; batzuetan apopiloen artean izaten da, edo gidari turistikoaren artean, edo apopilo eta beharginen artean.

TORAJAK ETA HAIEN ANTZINAKO HILETA-OHITURAK

Toraja edo Lur Garaietako herria.

Indonesian “antzinako erlijioa” –indonesieraz Aluk To Dolo edo Arbosoenganako Bidea– deitzen dena Sulawesi uharteko Lur Garaietako biztanle batzuek praktikatzan dute.

Gehienak kristauak dira, eta, gutxienez, % 10 “animistak” ere badi-ra, hau da, uste dute izaki, gauza edo fenomeno natural bakoitzak bere arima edo izpiritua duela, ezaugarri jainkozko edo naturaz gaindikoeekin. Zalantza barik, puntu hori oso garrantzitsua da “antzinako erlijioa” delako hori ulertzeko.

Berriro ere sinkretismo apur batekin topo egiten dugu, ez Japonian bezain errotua.

Torajak familia-unitate “zabaletan” biltzen dira, herrixka bakoitza familia handi bat baita. Besteak beste, soroetan, eraikuntzan, ospakizunetan, jardueretan eta zorren ordainketan laguntzen diote elkarri. Herriguneko Tongkonan nagusiaren inguruan biltzen dira, eta haren izena hartzen dute herria izendatzeko.

Historikoki hiru klase sozial izan dituzte: jainkoengandik datozen nobleak, plebeioak eta esklaboak, nahiz eta azken klase hori 1909an ezeztatu zen nominalki. Bakoitzari dagokion klasea emakumeek transmititzen dute, debekatuta dutelarik maila apalagoko norbaitekin ezkontzea.

Kalkuluen arabera, 1.100.000 “toraja” daude munduan zehar, eta gutxi gorabehera horietatik 450.000 inguru bizi dira Tana Torajako “lur garaietan”.

Bereziki ezagunak dira:

- Hileta-errituengatik, eta horien artean hileta-aurrekoak, hiletak eta ehorzketak daude, azken horiek labar harritsuetan edo... zuhaitzetan, oraindik hortzik atera ez zaien umeen kasuan.
- Tau Tau edo hildakoak irudikatzen dituzten zurezko tailuengatik.
- Lurperatutako gorpuak aireztatu eta garbitzeko *ma'nene* zeremoniengatik.
- Lehen aipatutako Tongkonan horiengatik, munduko bizialdian dituzten egoitzak.

Oso arropa koloretsuak janzten dituzte.

Turismoa handitzeak eta antropologoen interesak, besteak beste, beren sinesmen eta ohiturengatik oso harro egotera eroan dituzte, eta adeitasun handiz partekatzen dituzte bisitariekin.

Xehetasunetan sartzeko, nahiago dut ikusi genuena eta jaso genuen azalpena kontatzea, nahiz eta bisiten ordena ez izan hileta-errituak egiten direnekoa.

LEMO

Lemora iristean ikusten duzun lehenengo gauza opari-postu batzuk dira, Tau Tau irudiekin, eta txoko batean ur-bufalo bat sudurrean uzta bat duela, eta uztaila goian dagoen soka bati lotuta, horrek burua altxatuta edukitzera behartzen duelarik.

Lemo izeneko eremuan sartzen zara. Ona da alboko bidetik egitea, handik amildegi edo itsaslabarreko harkaitzean egindako indusketen ikuspegi panoramiko izango dugu eta. Familia-hilobiak dira.

Han sortutako kobazulo bakoitzaren sarbidearen ondoan balkoi edo palko moduko batzuk daude, eta haietan Tau Tau izeneko zurezko irudiak, hildakoak irudikatzen dituztenak.

Xehetasunetan sartuta, esan behar da eskultore espezializatuek egiten dituztela, “ogiairen zuhaitza” deritzenaren zurean taillatzen dutela-



TAU TAU

rik hildakoaren buruaren erreprodukzio artistikoa. Horri banbu-kanabera bat eta gorputzaren eta sorbalden egitura eratzen duten barrak gehitzen zaizkio, eta bizirik zeudela erabilitako jantziekin janzten dira. Irudia emakumezkoa bada, lepokoak gehitzen zaizkio.

Urrutitik ikusi ondoren, hilobietara hurbildu ginen eta haitzulo bat bisitatu genuen, barruan zenbait deribazio zituen, eta turismorako irekita zegoena. Gutako batzuk sartu egin ginen, eta mugikorrekoi linternaren laguntzaz ikusi ahal izan genuen burezurrez inguratuta geundela, baita barru-barruraino iristeko bidearen bila ilunpetan ukitu genituen hezurrez ere, eta diruz, beste bizitzan laguntzeko izango zela pentsatzen dut. Oroigarri pertsonalak eta gurutzeak ere bazeuden.

TONGKONAN BATZUK IKUSTERA JOAN GINEN ETA HIL BERRI BATEKIN TOPO EGIN GENUEN.

Torajen etxe tipikoak, *Tongkonan* izenekoak, eraikitzen jarraitzen zuten herrixka bat bisitatu genuen. Enbor handi batzuen euskarri gainean eraikiak, itsasontzien itxura dute.

Diotenez, tribu hori Moluka uharteetatik iritsi zen Zelebes uharteetara, zituzten arriskuen aurrean ihes egitearen ondorioz. Lehorreratu zirenean, beldurrak eroan zituen mendi garaietan babestera (hortik haien izenaren jatorria, lehen esan dudana legez). Ihesaldia erraztu zieten itsasontziak oroitzeko, forma horrekin eraiki zituzten etxebizitzak.

Haietako batean, handiengan, sartu ginen, zurezko eskailera bakun batetik. Beren artean bereizteko batere aterik gabeko hiru zatiz osotua zegoen: egongela handi bat, zelanbait esateko itsasontziko sotoari zegokiona, txopan logela komuna, eta brankan sukaldea, bi horien zorua egongelakoa baino gorago.

Brankaren puntari lurretik eusten zaio, besteak baino handiagoa eta sendoagoa den zutoin batekin. Hildakoekin eta haien hiletekin lotutako funtzio bat du, gero ikusiko duguna.

Bide nagusian lerrokatuta daude, eta, batzuetan, aurrez aurre erreprodukzio txikiagoak dituzte, garaien antzekoak, karraskarietatik salbu bihi edo aleak gordetzeko.



Tongkonan

Handik beste herrixka batera joan ginen, non tongkonan etxe dezente ari ziren eraikitzen.

Herrixka horretan, aberatsenen familia-hilobi mota bat zegoen, barietate mendealdekoagoa eta modernoagoa: panteoi karratuak, tradizioarekin bat egiten zutenak: Tau Tau irudiak, hildakoak tamaina naturallean irudikatzen zituztenak, sarrerako atearen ondoan, kristalezko ontzien barruan.


Bisita amaitutakoan, autobus-aparkaleku txikiaren ondoan, bizpahiru oroigarri-denda zeuden. Bidelagun bat eta biok, oroigarriekiko interes handirik gabeak, astiroago joan ginen eta alboan zegoen plazatxo moduko batean gelditu. Han konturatu ginen gazte batzuk zetozela, bi astorekin eta ohol batekin, eta atzetik beste bi, manta batean zeramatelarik gorpu bat izan zitekeena.

Etxe batean sartu ziren, eta, beharbada, haiek ohartarazita, andre bat atera zen, eta, oso irribarretsu, etxera sartzera gonbidatu gintuen, kei-nuka. Aurkitu nezakeena irudikatu nuenez, uko egin nion, baina nire lagunak baiezkoka eman zion.

Irtetea kontatu zidanez, astoaren gainean hildako baten gorpuzkiak jarri omen zituzten ("kolore grisa zuen" esan zidan), erruz perfumatua. Familiak, oso pozik bisitarekin, tea hartzera gonbidatu zuen, eta argazkiak ateratzera ere animatu zuen, baina ez zen ausartu.

Hilotzak bi urte inguru ematen ditu beretarren artean, eta denbora hori egokitzen jotzen dute hileta aurretik ospatzen den festa handira urrun bizi diren senideak etor daitezen, eta denbora izan dezaten senitarte-koei opari onak egiteko adina aurrezteko. Bakoitzak ahal duena edo nahi duena emango du. Ur-bufalo bat da jaso daitekeen gauzarik garrantzitsuena. Kasu horretan, adajea kenduko zaio hiltzen dutenean, eta Tongkonan edo familiaren etxaurrean dagoen zutoinean iltzatuko dute.

Zenbat eta adaje gehiago egon, orduan eta garrantzitsuagoa da familia.



bufaloen adajeak

HILETAN IZAN GINEN

Zorionez, handik hurbil zegoen leku batean hileta garrantzitsu bat egitekoa zen. Familiak beti daude pozik beraiei lagun egiteagatik horretan, izan ere, ospakizun sozial handia baita.

Lehen esan dudan bezala, bertaratzen den bakoitzak opari bat eroan behar du hildakoaren senideentzat. Gure kasuan, ohikoenak: arroza eta tabako-paketeak (sinestezina da zenbat erretzen duen jende hark).

Hartarako prestatu eta alokatutako esparruaren erdian, plaza karra-tu handi bat zegoen, zurezko gelaz inguratua, eta hileta-zentro bat. Bide bat hartu genuen, eta bertan aurkitu genuen lehen eraikina eliza protestante bat izan zen. Jarraian, plazaren sarreran, kartel handi bat ikus zitekeen hildakoaren daturik garrantzitsuenekin, argazkia barne.



eskela

Plazaren erdian bufalo batzuk ikusi genituen gainean zuten soka bati lotuta, eta, beti bezala, burua altxatuta edukitzera behartzen zituen hark.

29

Aldez aurretik hildako beste bufalo batzuen haragia prestatzen eta banbuzko enbor batzuk, barazkiekin beteak, sutan berotzen ari ziren inguruan zeuden gazte batzuk. Unea iritsi zenean, haietako batek banbua hartu zuen trapu busti batekin eskua ez erretzeko, eta beste batek matxete edo aihotzez jo zuen hala prestatutako janaria barrutik ateratzeko.

Leku estali hurbilenean, pertsona bat letaniak erreztatzen ari zen.

Gu beste esparru batera joan ginen, beste guztiak bezala irekia eta estalpea zuena, non emakumeak, haurrak eta agure batzuk zeuden. Lurrean eserita, eta gonbidatu gintuztenez, tea hartu genuen, baina uko egin genion eskaini ziguten arroz egosia jateari.



opariak hiletan

Handik gutxira, neska gazteenak plaza inguruan desfilatzen hasi ziren, eta familiarekin geunden tokiaren aurretik igaro zirenean, hartarako ontzietan arropa utzi zuten opari gisa.

Aurpegietan eta jarreretan alaitasuna ikusten zen. Ez zuten ezelango trabarik jarri argazkiak egin genitzan, eta gurekin pausatzea ere eskatu ziguten.

Gizonak jateko prest agertu zirenean, alde egin genuen handik, kultura berezi harekin harrituta.

BESTE HILERRI BATZUK: MONOLITOAK ETA ZUHAITZAK.

Duela milaka urteko trikuharri edo monumentu megalitikoaren gune bat ere bisitatu genuen. Antza denez, haien azpian lurperatzen ziren orduko nobleak eta haien abereak. Nahitaezko bisita turistikoa: monumentu-gunea da.



monolitoak



zuhaitza hilibiekin

Beste ezusteko batekin egingo genuen topo, oraindik hortzik atera ez zaien eta arima bere kabuz beste mundura joateko gai ez duten umetxoaren lurperatzearekin.

Errepide bazter batean etxola bat zegoen, eta bertan emakume batzuk beren neskatoekin (antza denez, gizonak beste zeregin batzuetan ari ziren). Haien hizkuntza ulertezinean berba eginez, neskatek baso batera eraman gintuzten, eta han tamaina handi samarreko zuhaitzak zeuden, altuera jakin batzuetan txertoen antzekoak zituztenak.

Hau da sekretua: haurtxo bat hiltzen denean, zulo bat egiten da zuhaitzean, eta presiopean sartzen da han, zulogunea azalez estaliz. Pixkanaka-pixkanaka, zurak xurgatuko du umea, eta haren arima, landarearen izerdiaren laguntzaz, mundu jainkotiarreara iritsiko da azkenean.

IKUSI EZ GENUENA: ME'NENE-A.

Japonian Obon-a ospatzen da. Hildakoen izpirituak zenbait egunez beretarren etxera itzultzen dira, eta horiek, gauz dir-dir egiten duten paperezko faroltxo gorri batzuk erabiltzen dituzte etorrerako bidea eta

beste mundura itzultzeko erakusteko. Izpirituaren egonaldiak 3 egun inguru irauten du, eta abuztuaren erdialdean izaten da, nahiz eta leku batzuetan aldatu egiten diren datak.

Torajen artean bertsioa bestelakoa da. Ez dute espero izpirituak familiakoak bisitatzea. Bizidunak dira hitzaren zentzu zabalean haiekin biltzen direnak. Haien izpirituarekin eta gorputzekin.

Horretarako, hilerrietara joaten dira eta hildakoen gorputzak ateratzen dituzte. Bereziki berri samarrak badira, tente jartzen dituzte, arropen egoerari begiratu, beharrezkoa bada aldatu eta haiekin argazkiak egiten dituzte. Gainera, bertaratutako turistak une hori partekatzen eta beren kamerekin hilezkortu edo betikotzen animatzen dituzte. Gero betiko atsedenlekura itzultzen dituzte.

Denbora igaro ahala, eta gorpuaren hondamena zenbat eta handiagoa izan, hainbat senideren errautsak eta hezurrak burusietan bildu eta berriro lurperatzen dituzte.

Haiatzat ohorea eta pozgarria da gorpuarekin tarte bat igarotzea eta poz hori arrotzekin partekatzea.

Prozesu hori amaitu eta hildakoa hilobira itzuli ostean, otordu bat egiten dute. Bazkalondoan ere zerbait bitxia egiten dute. Aire zabalean, herrixka batekoak hurbileko beste batekoen aurka borrokatzen dira, muga batzuekin: ezin dira ostikoak buruan jo, ezta lurrian dagoenari eraso egin ere.

Borroka amaitutakoan, lagunarte alaian elkartzen dira denak.

GAUZA GEHIAGO IKUSI GENITUEN.

Jarduera betean zegoen merkatu zabal bat bisitatu genuen, non elikagaiak eta arropak saltzen ziren. Mutur batean, eremu zabal bat zegoen animaliekin, mota, tamaina eta adin askotako bufalo ugari nabarmentzen zirelarik. Handienetako bat zelan baztertu eta atoi baten gainean jartzen zuten ikusi genuen. Gidariaren arabera, egun gutxi barru hileta bat izango zen.

Itsasontzi-etxeak zituen herri batean ibili ginen paseoan, non emakumeak arropa koloretsuak ehuntzen ari ziren, eta hurbileko ibaian eguna pasatzera eta ur freskoetan bainatzera joandako familien konpainiaz gozatu genuen. Haiekin nahastu ginen eta haien dantzak eta barreak partekatu genituen.



bufaloa azokan

Makassar-eko aireportura itzultzeko, goizaldeko 02:30ean jaiki ginen. Zorionez, abiatu eta gutxira, eguna argituz joan zen, eta itzulera bidaia lasaia izan zen. Paisaiatz gozatu eta birritan gelditu ginen, batean berriz gosaltzera eta bestean goldatzen ari ziren arroz-soroen artean paseatzera.



festa ibaian



arroz-soraa goldatzen

EPILOGOA

Indonesiako bidaiak, besteak beste, herrialdearen tamainaren arazoa du. Bisita litezkeen leku asko daude natura maite dutenentzat, hala nola Borneo uhartea, baina ezin da ohiko zirkuitu batean sartu.

Nik neuk, Torajen oroitzen gain, Java eta Ubud-eko tenpluak, Bromoko egunsentia eta Candidasako erlaxamendua izango ditut gogoan. Aipagarria da, halaber, luxu hutsezko hiri txiki bat den Indigo hotela Balin (*Hotel Indigo Bali Seminyak Beach*), baina, aitzitik, huts egin zidaten hondartzek. Hobeak eta zainduagoak ditugu hemen bertan.

Ondorioa: ez dut uste oker nabilenik, mezezi duen bidaiak gogobetegarria dela esaten badut.

IRAKURLE BIDAIAIAREN-TZAKO ESKAERA.

Egunen batean bidaiak hau egitera animatzen bazara, Misiliana Toraja hotela iristen zarenean, galdetu ea han duten oraindik bezero batek ahaztutako liburu-irakurgailu elektroniko bat, nik han utzi nuen eta. 02:30 ez da ohetik jaikitzeko ordua.

Azken maitasuna

3 azaroa, 2025 | por Fernando Urien

Parrokoak ez zuen onartu hileta-elizkizunik egitea; inor ez zen joan azken agurra egitera. Hala ere, Maria Luisa Fernández de Henaresek, laurogeita hamaika urterekin, hilkutxa orga batean jartzea lortu zuen, eta bi euro kostatu zitzaion, ikaztegiko mutilak astoa hileriraino gida zezan. Han ere, ziur aski, ez zioten lurperatzen utziko, baina Maria Luisak aurrera egingo zuen.

Eguerdia zen, eguzkiak “Argandilla” herriko asfaltoa gogor zigortzen zuen, batez ere hilkutxaren igarobidea zen “Lorezaintza” kalekoa. Bero itogarria zen giroan eta bidean zehar airean zeuden bakardade-hodeiak eratzen zituen. Haizeak ozta-ozta mugitzen zituen zuhaitzen hostoak, eta isiltasunak gainezka egiten zuen hiribideko etxetxoan espaloietan eta hormetan. Herriko bazterrak oihartzunez ziprizzintzen zituen zaldi-kroskoen hotsak bakarrik lagun egiten zion Maria Luisari orduan. Orga korrokoilaren gainean zerraldoa zegoen, lasto-hondar batzuk, bi limoi eta laranja bat, orgaren mugimendurekin iraulka.

Inor ez zen atera hildakoari azken agurra ematera. Batzuek leihotik begiratzen zioten, gortina artetik, orgaren ibilera motelari. Batez ere bihozberatasunez begiratzen zioten Maria Luisari, erotuta balego bezala. Beste batzuek burua biratzen zuten, hilkutxa zelan igarotzen zen jakinguraz behatzeko, eta bazen eskuarekin espantuka zebilenik ere behingoz utz zezan egiten ari zena. Angela bakarrik, aspaldiko laguna eta berton bizi zena, hurbildu zitzaion muxu bat ematera.

Alaba ere hurbildu zitzaion zer bait ohartaraztera, eta hala esan zion, ahopean, ikaragarri lotsagarria balitz bezala, ea erotuta al zegoen, nahikoa iskanbila sortu zuela eta alde batera uzteko

txorakeria haiek. Beste bi semeak ez ziren agertu ere egin herrian. Aspaldian ez zituen ikusi. Noizean behin telefonoz edo bideokonferentziaz hitz egin izan zuen haiekin. Beti lanpetuta zeuden, beti urrun.

Maria Luisak, ordea, maite zuen hildakoa, zeren eta, nahiz eta hari buruz gizagabea zela eta entretenimendu mekaniko hutsa besterik ez zela esan jendeak, hura izan baitzuen bere konpainia bakarra bizitzako azken urteetan. Harekin izan zituen solasaldi entretenigarri eta interesgarriak, hark zaindu zuen eskaileretan behera erori eta ohean egon zenean, hark lehortu izan zizkion malkoak oroitzapenak deprimitzen zutenean, hark lagundu zion bakardaderik handieneko uneetan, hark musu eman zion eta besarkatuta lo egin kontsolatzeko, hura arduratu zen beti har zezan zorioneko pastilla, hark deitu zion medikuari arnasa hartu ezinik jarri zenean, hark abestu izan zizkion sehaska-kantak loak hartzen ez zuenean, hark ikusi zuen barrez, negarrez, kantuan eta sufritzen, hark pizten zion pantaila semeekin berba egiteko, bai, beti lanpetuta eta atzerrian edo beste edozein lekutan baina beti urrun zeuden haiekin.

Seme haiek, berak bularra eman eta hazten eta hezten ziren bitartean bere gozamen izan ziren haiek, desagertuta zeuden orain. Haietatik geratzen zitzaion gauza bakarra ordenagailuko edo telekomunikazioetako pantaila-irudiak ziren, noizean behin eta denbora laburrez goza zitzakeenak. Argi-distirak ziren, usaindu edo ukitu ezinezkoak, etxeko berotasunik gabeak, eta konexioa amatatzean azkar desagertzen zirenak. Orduan, gelako eta etxe osoko hormak urratzen zituen isiltasunak. Orduan, “Enrike” izaten zen -Maria Luisak beti “Enrike” deitu zion, nahiz eta seme-alabek esan “XR-25, bigarren belaunaldi kuantikokoa” zuela izena- txisteak kontatuz hurbiltzen zitzaiona, lehengo kantu haietakoren bat kantatuz, masaila laztanduz, behar izanez gero besarkatuz, senargai batek bere maitalea besarkatzen duen legez. Bai, “Enrike” makina bat zen, bizirik zegoela sentiarazten zuen makina bat, eta hark erakutsi zizkion izarren distirak ilargirik gabeko gau batean, eguzki-izpiak txorrotaren zurrustan zehar, ur-tantek erortzean egiten zuten musika euria ari zuenean, isiltasunaren kolore urdin ahula besarkada batean. Berarekin maitatua sentitu zen eta askotan, seme-alabek izaki biziduna ez zela esaten bazioten ere, haren afektua nabaritu zuen bere bihotzaren sakonenean.


Zelan nahi zuten seme-alabek beren burua “Enrike”rekin alderatu? Bai, umeak zirenean maitagarriak ziren; gero, ikasle-garaian bazkaltzera edo beren gelan lo egitera etxera itzultzen zirenean, orduan ere haren bizitzaren parte ziren, zeren eta etxean zeudenean haiekin eztabaidatzen baitzuen, haiekin barre egiten zuen, musu ematen zien eta besarkatu egiten zituen amaren bihotzaren berotasun guztiarekin. Baina orain, zer dira orain? Pantailan isla batzuk besterik ez, ezin dituzunak ukitu, musukatu edo besarkatu. Isla batzuk, agertzen diren bakoitzean erlojuari begira egoten direnak, irribarre egiten diotenak eta, noizean behin, ustez gizakiak izango diren ume batzuk erakusten dizkietenak, berak ez baitzituen ia halakotzat ikusi ere egin oraindik oso txikiak zirenean.

Ez, semeak ez ziren hiletara joan, ezta errieta egitera ere, alabak egin bezala; “MM-840 bosgarren belaunaldi kuantikokoa” etxera bidaltzeaz bakarrik arduratu ziren semeak, Carlos eta Ricardo. Hori bai, pantailako islen artean esan zioten “Enrike”, hain xamurra zen eta hain gizatiarra ematen zuen hura, baino askoz hobea zela, bilera batean aurkeztu zutela eta inor ez zela konturatu robota zenik ere. Maria Luisak “Fernando” deitu zion, eta eman zion lehen agindua “Enrike” hilkutxan sartu eta organ jartzekoa izan zen



2026 Fiscalitate Berria

BGAEn ERRESKATEEN ARAUDI FISKAL BERRIARI BURUZKO LEHEN ONDORIOAK EUSKADIKO FORU LURRALDEETAN APLIKATZEKO, 2026ko URTARRILAREN 1etik AURRERA



33

1.- Bai errenta moduko erreskateek, bai kapital modukoek, zerga-ikuspegitik, onurak dituzte araudi berriarekin.

2.- Onura handiagoa izango da zenbat eta handiagoa izan etekinen zatia erreskatatutako guttizkoarekiko.

3.- Kapital moduko erreskateetan, hobekuntza, funtsean, lanaren oinarri likidagarriari aplikatu beharreko tasen eta aurrezkiaren oinarri likidagarriari aplikatu beharreko tasen arteko alde handiak eragiten du. Ideia bat egiteko, lan-etekinei aplikatutako tasarik altuena **% 49 da**, baina aurrezki-etekinei aplikatutako tasarik handiena **% 28 da**.

4.- Kapital moduko erreskateetan, zerga-ordainketa murriztua aplikatzeko aukera mantentzen da, kontingentziagatik eta 300.000 eurora mugatutako diru-ateratze baterako.

Araudi berrian, egindako ekarpenei eta/edo kontribuzioei dagozkien lan-etekinen zenbatekoaren **% 70** integratuko litzateke; aurreko araudian, ateratako gutziaren **% 60** integratzen zen, eta lan-etekintzat hartzen zen gutzia.

Diru-ateratze hobaridun horietarako araubide iragankor bat dago, araudi berria edo aurrekoa aplikatzeko aukera ematen

duena. Hautatzeko aukera ateratakoarekiko etekinek suposatzen duten ehunekoa araberakoa izango da. Gutxi gorabeherako eta orientagarria izan daitekeen ideia bat egiteko, kontuan izanda erreskateaz gain, Haziako titularrak 41.000 euroko pentsioa aitortzen duela PFEZn, eta aurrezkiaren aparteko etekinak 2.500 eurokoak dituela, apur bat onuragarriagoa izango litzateke araudi berria aplikatzea, baldin eta etekinen ehunekoa, gutxienez, **% 55** bada.

5.- Zerga-erreformaren onuradun nagusia aldi baterako errenta moduan egiten den erreskatea da, betiere bi baldintza betetzen badira: iraupena gutxienez 15 urtekoa izatea eta haren zenbatekoa konstantea izatea edo, balioa handituz gero, muga jakin baten barruan egitea (funtsean, KPI edo pentsio publikoen errebalorizazio-indizea).

Kasu horretan, **Bizkaian bizi direnentzat, etekinei dagokien zatia zerga-ordainketatik salbuetsita egongo da % 100**, eta Araban eta Gipuzkoan bizi direnentzat ere hala egongo da, baina ateratakoaren **% 40ko** zenbatekora arte mugatuta.

Patua

21 azaroa, 2025 | **por Fernando Urien**

Autoen gurpilek zoladuran egiten duten marruskadura entzuten dut. Kaleak bustita daude eta airea heze. Oinezkoen isiltasunak haien urratsen presa entzutea ahalbidetzen dit. Goiz da, zirimiria tanta ñimiñoek aurpegia hozten didate. Presaka noan arren, inorekin behaztopa ez egiten saiatzen naiz, makilarekin haztamuka nabil nire urratsen erritmoan. Badakit jendea aldendu egiten dela ni ikustean, eta ez diot inori enbarazu egin nahi. Pixkanaka, hirian bakarrik ibiltzera ohitu naiz.

Merkataritza-gunera sartzean, batere arraroa ez den usaina hartu dute nire zentzumenek. Usain hori... Bihotza bizkortu egin zait eta orientazioa galdu dut. Paretak haztatuz, gorputza haien kontra-kontra dudala egin dut aurrera, bazter baten bila, ezkutatzeko txoko baten bila. Zentzumenek oroitzapenak nahastu dizkirate, nire urratsek dar-dar egin dute eta paretetako marmol hotzak ez nau ezkutatu nahi. Izkinan beste aldera pasa eta babesleku desiratua aurkitu dut. Isiltasunez inguratutako txoko bat da. Gordeleku txikiko marmolen artean, geldi geratu naiz, ezkutaturik nagoela pentsatuz, usaina ni han nagoela ohartu barik igaroko den esperantzan, geldi-geldi, marmolezko beste baldosa bat izaten ahaleginduz. Arrotza atzo ezagutu banu bezala itzuli dira nire oroitzapenak.

Hamazazpi urte nituen eta, literaturako eskolan, Ramón del Valle Inclán-en *Luces de bohemia* antzezlan irakurtzeko agindu zidaten. Antzezlan bat zenez, liburutegian bertan irakurtzea bururatu zitzaidan. Bi ordutan irakurriko nuela pentsatu nuen.

Irakurgelan isiltasuna zen errutina, nahiz eta egun hartan jende gutxi zegoen. Bost mahai eskas txarto banatuta. Idazma-haiko lanparek liburuak bakarrik argitzen zituzten, eta apur bat ikasleak. Liburua ireki eta irakurtzen hasi nintzen; sei ginen jada. Obraren erdira iritsi barik nengoela, gelako isiltasunak atentzioa eman zidan. Begiak altxatu eta gela handian bakarrik nengoela konturatu nintzen; mahaiak hutsik zeuden. Airean lodi nabaritzen zen, eta iluntasunean laino arin bat sumatzen zen idazmahai hutsen artean. Areto osoan, nire mahaiko argia bakarrik nabari zen. Nire atzeko ate baten zaratak asaldatau egin ninduen. Jiratu eta arrotz bat ausarki hurbiltzen ari zitzaidala ikusi nuen. Ixteko ordua ote zen? Hain azkar? Usain arraro bat, pipiak jotako zurarena bezalakoa, zurgindegietatik irteten den zerrauts sikuarena lakoa. Jaun luze batek, arrantzale-kapelarekin, hiru laurdeneko gabardina zuen soinean, eta gerriko bat hain estua ezen gerririk gabea baitzirudien. Eskuak poltsikoetan zituela, zola gogorreko zapatak erabiliko zituen, haren oin-hotsak oihartzun luze batez errepikatzen baitziren gelan. Nire ikasgelara hurbildu zenean, ia dardarka nengoen ni; oso maltzurra ematen zuen. Hala ere, nire aurrean jarri zenean, aurpegi mehe eta triste bat ikusi nuen; masailalbo-hezurak nabarmentzen zitzaizkion eta bizar hasiberria zeukan, beltzegia hain aurpegi zurbilarentzat. Haren begitarte tristearen eta janzkera bitxiaren kontrasteak itxura mistikoa ematen zion bisitariari.

—Asko sentitzen dut zurekin topo egitea. Hain zara gaztea...

Haren eiteak eta ahots-tonuak hunkitu egin ninduten. Zergatik desenkusutzen zen? Azken finean, hurbildu besterik ez zen egin.

— Ez kezkatu — erantzun nion bere presentziarekiko jakinguraz.

— Ez dakizu nor naizen, ezta?

Zelan jakingo nuen ezer arrotz hari buruz? Hala ere, haren ahotsaren seriotasuna ni urduritzen hasi zen. Liburutegian alde batera eta bestera begiratu nuen, baina han ez zegoen inor. Ez nion begiratu nahi gizonari, urduri nengoen eta. Arrotza, ordean, niri begira neukan. Giroa hainbesteraino tenkatu zen, ezen isiltasunari odola baitzerion.

— Zer gura duzu? — galdetu nion bere begi grisei... ilunei... marroiei... so eginez. Zein bitxiak ziren!

— Patua naiz.

Alajainkoa! Besterik ez nuen behar! Oraindik ordubeteko irakurketa falta zitzaidan bukatzeko. Begiak jaitsi eta irakurtzen hasi nintzen, bera han ez balego bezala. Baina ezin izan nuen ezer irakurri, haren presentziak, isila izan arren, ez zidan uzten-eta gogoan biltzen.

— Zorigaiztoko patua.

— Barkatu, baina irakurri egin behar dut... — Orduan konturatu nintzen betazalak bustita zituela eta aurpegia triste. Ez nekien zer esan. Hala ere, jarraitu egin zuen hark:

— Neska batekin gurutzatu nintzen. Orduan, ondoan zuen gazteak bortxatu egin zuen. Garrasika ari bazen ere, inork ez zion entzun.

— Jainkoarren!, sentitzen dut. Baina zuk... ez zenuen ezer egin? Ez zenion polizia deitu?

— Zelan, ba? Bakarrik nengoen berarekin, zurekin bezala. Gela hau beteta egon arren, biok bakarrik gaude.

Batera eta bestera begiratu nuen, han ez zegoen inor. Hala ere, idazmahaien gainean zintzilik zegoen lainoa kezkarria iruditzen hasi zitzaidan.

— Neskak ez zuen seme hura eduki nahi, eta abortatu egin nahi izan zuen. Baina amak ez zion utzi. Umearen bizitzari buruz eztabaidatu zuten: gizakia zen ala ez, neskak haren bizitzarekiko eskubidea ote zuen edo ez, hilketa bat egingo zuen edo zama handiegia ote zen halako zirkunstantzietan. Egia esan, berriro topo egin nuen harekin eskailera batzuetatik behera erori zenean. Konorte barik geratu zen aldi batez. Esmatzean, haren alaba jaiota zegoen. Ez zuen onartu, uko egin zion alabari, baina amak etxean hartu zuen.

Zorigaiztoko jaun hura ezinegonaren sortzen hasi zitzaidan. Patua? Patua baldin bazen, inork topatu zezakeen paturik txarrena zen... Ezin izan nuen liburuarekin jarraitu.

— Urteak joan eta urteak etorri, zebrabide bat gurutzatzen ari zen beste emakume haurdun batekin topo egin nuen. Auto batek harrapatu zuen, eta bera eta umekia hil zituen.

— Zu ez zara patua, jauna. Zu zorigaitz hutsa zara gabardinarekin. Madarikazio bat. Utz nazazu bakean! Jainkoarren!

Hala ere, hainbeste tentelkeriaz urduritzen hasia nintzen arren, beste alde batetik ikaratu egiten nintzen. Baina hark bere kontakizunarekin jarraitzen zuen, nik iritzirik ematerik ez banu bezala, entzun besterik egin behar ez banu bezala.

— Emakume batek atsekabetuta negar egin zuen hildakoen-gatik, haurdun zegoen neskaren ama zen. Bortxatutako emakumea zen. Bere garaian jaio zitzaion alabari uko egin zion hura. Atsekabetuta negar egiten zuen.

Ez nion entzun nahi izan eta, beraz, begiak jaitsi eta liburuko letrei begira geratu nintzen. Ez nuen irakurtzen, ezinezkoa zen gizon hura ondoan nuela irakurtzea. Handik pixka batera, ez nuen haren berbetarik entzuten. Betiko isildu ote da? Orduan, begiak altxatu nituen, liburutegiak argituagoa zirudien eta beste bi pertsona irakurtzen ari ziren. Arrotza ez zegoen jadanik, edo behintzat ez nuen inon ikusten. Joan egin ote da? Ezin izan nuen irakurtzen jarraitu, beraz, liburua maileguan hartu eta alde egin nuen.

Hari tenkatu bat bezala, bai, halaxe sentitu nuen, irtetean nire urratsekin dar-dar egiten zuen hari tenkatu bat bezala. Nire begiek ez zuten ikusten, nire zentzumenentzat ez zen existitzen, baina nik banekien han zegoela, nire denborak luzatzen, nire etorkizuna tenkatzen. Aurrera jarraitu nuen, baina haria gero eta gehiago tenkatzen zen... eta liburutegiko atetik irtetean, "tik!" apurtu egin zen. Orduan, atarian lanean ziharduen soldatzaila baten pistolaren txinpartek begiak erre zizkidaten. Harrezkero, ez dut gehiago ikusi.

Orain, orduan bezala, zurgindegiko zerrautsaren usaina hartzen dut. "Hemendik irten beharra dut!". Paretaren kontra-kontratik noa aurrera, baina haria tenkatuta sumatzen dut berriro. Ihes egin gura dut, eta lehenengo izkinan azkar bira hartzean... "tik!". Haria apurtu egin zen...



Bbk-ko jubilatuen eta pentsiodunen elkartea

Principe kalea, 5. dpto. 505
48001 BILBO

Tel. 94 425 57 96

asojubibbk@gmail.com

www.asojubibbk.es

